eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
Neurozientzien Saila

DOKTOREGO-TESIA

Ingurune aberastuaren eragina MK-801 eskizofrenia animalia-ereduan: hobekuntza kognitiboaren oinarri neurokimikoak.

ANE MURUETA-GOYENA LARRAÑAGA

ZUZENDARIAK

Harkaitz Bengoetxea Odriozola

José Vicente Lafuente Sánchez

Leioa, 2018

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
Department of Neuroscience

DOCTORAL THESIS

Neurochemical Basis of Cognitive Enhancement in MK-801 Animal Model of Schizophrenia: The Role of Enriched Environment

ANE MURUETA-GOYENA LARRAÑAGA

SUPERVISORS

Harkaitz Bengoetxea Odriozola

José Vicente Lafuente Sánchez

Leioa, 2018

NEUROZIENTZIEN SAILA
DEPARTAMENTO DE NEUROCIENCIAS
MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE MEDICINA Y ODONTOLOGÍA

ANE MURUETA-GOYENA LARRAÑAGA-k aurkeztutako doktorego-tesia

Lan honek hurrengo diru-laguntzak jaso ditu:
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU (UFI 11/32, EHU 14/33, PPG 17/51),
eta Eusko Jaurlaritza (GIC IT 901/16).
Ane Murueta-Goyena-k Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU)
doktoratu aurreko laguntza jaso du.

.

ZUZENDARIAK
Harkaitz Bengoetxea Odriozola
José Vicente Lafuente Sánchez

Neurozientzien Saila
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
Leioa, 2018

NEUROZIENTZIEN SAILA
DEPARTAMENTO DE NEUROCIENCIAS
MEDIKUNTZA ETA ODONTOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE MEDICINA Y ODONTOLOGÍA

Doctoral thesis presented by

ANE MURUETA-GOYENA LARRAÑAGA

This work was supported by grants from the
University of the Basque Country UPV/EHU (UFI 11/32, EHU 14/33, PPG 17/51),
and by the Government of the Basque Country (GIC IT 901/16).
Ane Murueta-Goyena was provided a predoctoral fellowship
of the University of the Basque Country UPV/EHU.

SUPERVISORS

Dr. Harkaitz Bengoetxea Odriozola

Dr. José Vicente Lafuente Sánchez

Department of Neuroscience
Faculty of Medicine and Nursery
University of the Basque Country UPV/EHU
Leioa, 2018

ESKERTZAK

Amai, atxai, Irenei eta Beñatei. Neure euskarri handixena zazelako.

Kalandiko Tomasai eta, bereziki, Goikoi.

Harkaitzei. Nire "ikasle" bizitxako azkenengoko txanpan zeu ixan zazelako bidi argitxuztana eta lagunduztuna lan hau aurrea ataten. Bazkal osteko kafe momentuk beti neuaz erungotelako eta tesi garaiko momento gatxak errez bihurtzeko gai ixan zazelako.

A José Vicente, por su fuente de sabiduría que me ha permitido crecer como investigadora, pero sobre todo, como persona. Tus consejos, comentarios y propuestas, siempre han conseguido que me devanara los sesos… y eso me encanta.

Naiarai. Zure laguntzi ezinbesteku ixan da tesise aurrea eruteko. Ofizialki halan ez ixan arren be, neure zuzendari eta tutore morun ikusten zatxutelako eta zeuri esker beti mantendu ahal ixan dot buru argi. Bir ixan dotenin jakin ixazulako ni zelan lasaitxu eta zelan bideratu nire lana, eskerrik asko.

To Zsuzsanna Callerts-Vegh, Rudi D'Hooge, and the Laboratory of Biological Psychology, for giving me the opportunity to have such a great professional and personal experience in Leuven.

A mis segundos padres, Mari Paz y Santi, y a mi cuñadituki Ainhoa, porque desde el día que conocisteis me habéis tratado como a una hija y una hermana.

A Iñigo. Tu apoyo incondicional hace que pueda cumplir todas las metas que me proponga.

Amai, atxai eta aumai

"Ikertzea mundu guztiak ikusi duena ikustea da eta inork pentsatu ez duena pentsatzea"

(Albert Szent-Györyi)

"The function of education is to teach one to think intensively and to think critically. Intelligence plus character - that is the goal of true education"

(Martin Luther King, Jr.)

"A mind that has been stretched by a new experience can never go back to its old dimensions"

(Oliver Wendell Holmes, Jr.)

Aurkibidea

ABSTRACT

NMDAR hypofunction hypothesis has been notably successful in explaining the pathophysiological findings and symptomatology of schizophrenia. Thereby, NMDAR blockade in rodents may represent a useful tool to identify new therapeutic approaches for cognitive and neurochemical alterations associated with the disease. In this respect, enriched environment (EE) could play an essential role. Investigating the underlying neurochemical modifications would shed new light on the neurobiological mechanism used by EE to reverse the actions of MK-801.

Using a multilevel approach of behavior, cellular quantification and protein analysis, we tested whether adult exposure to EE could improve behavioral, cognitive, structural and cellular impairments resulting from early postnatal MK-801 treatment (0.5mg/kg, P10-P20). Here we demonstrate for the first time that adult-life short exposure to EE ameliorated postnatal MK-801-induced cognitive alterations in Morris Water Maze, Novel Object Recognition and Object-in-Place tasks, and counteracted the reductions in brain volume, microvascular supply and interneurons markers. Moreover, we found increased cell proliferation because of MK-801, but only EE-housed animals presented increased granule cell survival. We also examined how MK-801 and EE influenced on NMDAR subunit expression, BDNF-TrkB signaling pathway, and downstream signaling pathways to provide a molecular basis to cellular and cognitive improvements. In the present study, we report that cognitive and cellular changes were associated with upregulated BDNF-TrkB signaling and a set of modifications on the components of glutamatergic neurotransmission.

Taken together, our findings reveal new insights into the beneficial effects of experience in EE in adulthood of animals treated postnatally with MK-801, and renders EE a useful strategy to improve cognitive impairments, network disturbances and neurochemical alterations relevant to schizophrenia.

1. Sarrera

Eskizofrenia gizartearen %1ari eragiten dion buru nahasmendua da. Gaixo eskizofrenikoek erikortasun eta heriotza tasa altuak erakusten dituzte eta haien bizi-itxaropena %20an murrizten da biztanleri orokorrarekin alderatuta (Auquier et al., 2007). Eskizofreniaren ikuspegi klinikotik azpimarratzekoak dira sintoma kognitiboak, hauek eskizofrenia pairatzen duten gaixoen gizarteratzea eragozten baitute. Gaur egun, sintoma kognitiboak tratagaitzak dira eta luzeko ezintasun eta langabeziarekin erlazio zuzena dute. Hauen artean, aipatzekoak dira oroimen hutsegiteak, lan-memoriako defizitak eta arrazoiketa prozesuetan zein ahozko jariotasunean erakusten dituzten zailtasunak.

Azken bi hamarkadetan, eskizofreniaren disfuntzio kognitiboa ulertzeko ahalegin ugari egin dira. Eragin handiko patologia izan arren, bere jatorri etiopatogenikoa ez da guztiz ezaguna. Hala, gaixotasunaren erantzule, besteak beste faktore genetikoak, ingurumen faktoreak edo hauen arteko konbinazio konplexuak proposatzen dituzten hainbat hipotesi argitaratu dira *(Singh et al., 2014; Uher, 2014)*. Garuneko eskanerrek eta *post mortem* egindako ikerketek aldaketa esanguratsuak azaleratu dituzte eskizofrenia duten gaixoetan, batez ere kortex prefrontal eta lobulu tenporaleko eremuetan. Hauen artean, kortexeko bolumen murriztua *(Ordóñez et al., 2016)*, zirkuituen konektibitate arazoak *(Garey L, 2010)* eta neuronen aldaketak deskribatu dira *(Liu et al., 2014)*. Aldaketa guzti hauek eskizofreniaren ezaugarri den disfuntzio kognitiboarekin erlazionatuta daude. Horrez gain, hipokanpoko barne- eta kanpo-zirkuituak ere aldatuta aurkitzen dira *(Benes, 2000)*, zelula GABAergikoen zirkuituak barne. Interneurona GABAergikoek zelula kitzikatzaileekin duten tokiko elkarrekintza nolabait eraldatuta dago eskizofrenian eta honek gaitasun kognitiboaren galera sortzen du *(Rotaru et al., 2012)*. Era berean, hipokanpoa eta kortex prefrontalaren arteko konexio aferente eta eferenteak ere kaltetuak daudela deskribatu izan da *(Godsil et al., 2013)*. *Post mortem* egindako ikerlanak eskizofreniaren etiologia kortex prefrontaleko eta hipokanpoko zelula GABAergiekoetan aurkitzen denaren euskarri dira. Zehazki, ikerketa inmunohistokimikoek parbalbumina eta somatostatina adierazten duten interneuronen murrizketa egiaztatu dute *(Hashimoto et al., 2003)*.

Eskizofreniaren oinarriak ikertu eta baliagarriak izan daitezkeen terapia eta estrategiak aztertzeko hainbat animalia-eredu erabili izan dira. Animalia-ereduak gaixotasun psikiatrikoak ikertzeko erabiltzearen eragozpenetako bat gaixotasun hauen oinarri neurobiologikoen ezagutza urria da. Hala ere, eskizofreniaren prebalentzia handia eta gaixotasun honi lotutako ondorio kaltegarriak kontuan izanik, animalia-ereduak

ezinbesteko tresna bilakatu dira. Karraskarietan eskizofrenia eragiteko hainbat eredu proposatu badira ere, jaiotza inguruan N-metil-D-aspartato hartzaileak (NMDAR) blokeatzeak eskizofrenia pairatzen duten gizakien antzeko sintomak eta aurkikuntza patologikoak azaleratzen ditu: kortex prefrontalaren bolumenaren murrizketa, hiperaktibitatea eta ahalmen kognitiboaren akatsak, besteak beste. Beraz, animalia-eredu hau bereziki interesgarria da gaixotasunaren aurkako terapia edo estrategia egokiak bilatzeko *(Bubeníková-Valesová et al., 2008; Nakazawa et al., 2017)*.

Gaixotasun neurologikoen sintomatologia imitatzen duten animalietan badago eritasun hauen sintomatologiaren murrizketan funtzio garrantzitsua betetzen duen eragile bat: ingurune aberastua. Ingurune aberastuak zentzumenen erabilera, ariketa fisikoa eta sozializazioa areagotzen ditu, eta hauen bidez, ikas-ahalmenaren eta oroimenaren areagotzea eragiten du, bai baldintza patologiko zein baldintza arruntetan. Ingurune aberastuko kaiolak ohiko laborategi-kaiolak baino handiagoak dira eta bertan tamaina, kolore eta testura desberdinetako objektuak kokatzen dira, hala nola, jostailuak, tunelak, aldapak eta ariketa fisikoa egiteko gurpilak. Halaber, aberastutako ingurunean hazitako animaliek neurogenesia, gliogenesia eta dendriten adarkatze handiagoa erakusten dute *(van Praag et al., 2000)* eta gertakari guzti hauek urrituta daude eskizofrenian. Nerbio sistema zentralaren gainean eragiten duten beste hainbat gaixotasunetan ingurune aberastuak efektu onuragarriak dituela egiaztatu da *(Nithianantharajah eta Hannan, 2006)*. Emaitza faboragarri hauek kontuan izanik, ingurune aberastuak eskizofrenian izan dezakeen eragina aztertzea da lan honen xedea. Orain arte egindako ikerketa guztietan, ingurune aberastuak animalien garunetan eragindako onurak nabarmenak dira, bai gaitasun kognitiboari dagokionez, bai aldaketa zelular eta molekularrei dagokienez ere. Hala ere, ingurune aberastua eta eskizofrenia uztartzen dituzten lan gutxi argitaratu dira. Eskizofrenia jaio ondorengo garapeneko gaixotasun bat dela susmatzen den arren, sintomak nerabezaro/helduaro goiztiarreraino agertzen ez direnez, erronka garrantzitsuenetako bat iraupen luzeko aberrazio sinaptikoak dituzten zirkuitoak eraldatzea da. Ildo honetatik jarraituz, NMDA hartzaileen hipofuntzioa eragiten zaion animalia-eredu batean ingurune aberastuak izan ditzakeen efektu onuragarriak ikertzeak, farmako espezifikoagoak garatzen lagunduko luke. Azpimarratzekoa da baita, ingurune aberastua albo-ondoriorik gabeko estrategia seguru bat dela, eskizofreniaren kasuan sintoma kongnitiboen tratamendurako interes translazionala duelarik.

1.1. Ikasketa eta Oroimena

Ikasketa eta oroimena ingurumenari buruzko informazio eguneratua barneratzea ahalbidetzen duten prozesu dinamikoak dira, azken xede bezala egokitzapenezko portaera gidatzea dutelarik *(Preston eta Eichenbaum, 2013)*. Ikasketa ingurunetik zentzumen-informazio ugari biltzen duen prozesu gisa definitzen bada, oroimenak informazio hori kodifikatzea, biltzea eta berreskuratzea ahalbidetzen du. Ikasketa eta oroimen-sistemak kategoria desberdinetan bana daitezke eta oroimen-sistema horietako bakoitza garuneko egitura eta zirkuitu neuronal desberdinetan oinarritzen da (1. irudia). Hala ere, objektu, leku eta gertaerei buruzko informazioa egitura azpikortikaletara konektatuta dauden garuneko integrazio multimodal edo asoziazio eremuetara helduko da, eta egitura azpikortikalek kortexeko adierazpena moldatuko dute. Elkarrekintza konplexu horien oinarriak oraindik argitzeko badaude ere, ikasketa eta oroimenak egunerokotasunean duen funtsezko rola dela eta, mekanismo zelular, molekular eta zirkuitu mekanismoak argitzeko ahalegin nabarmenak egiten ari dira.



1. irudia. Oroimen-sistema ezberdinen irudikapen eskematikoa

1.1.1. Ikasketa eta oroimen prozesuetan parte hartzen duten garuneko eremuak

1.1.1.1. Hipokanpoa eta kortex prefrontalaren arteko elkarrekintza

Asko dira ikasketa eta oroimen prozesuetan parte hartzen duten eremu telentzefalikoak, baina hipokanpoak eta kortex prefrontal medialak (mPFC) jokatzen duten papera nabarmentzekoa da. Hipokanpoak objektu espezifikoak eta haien kokapenak kodifikatzen ditu testuinguru batean, karraskarien nabigazio espazialaren gaitasunerako bereziki garrantzitsua delarik *(Preston eta Eichenbaum, 2013)*. Gizakien kasuan aldiz, hipokanpoa adierazpen episodikoaren oroimena kodifikatzeko behar-beharrezko egitura da eta mPFC-ak funtzio exekutiboak gobernatzen ditu, arreta eta malgutasun kognitiboa barne. Horrez gain, mPFC-ak rol garrantzitsua betetzen du urruneko, azkenaldiko eta epe laburrerako oroitzapenetan ere *(Euston et al., 2012)*.



2. irudia. Hipokanpo eta kortex prefrontalaren arteko informazio-fluxu bideak. Preston eta Eichenbaum. Curr Biol. 2013-tik hartua eta moldatua.

Hipokanpoaren eta mPFC-aren zereginak oso desberdinak badirudite ere, bi eremu hauen eta beste eskualde kortikalen arteko elkarreragina funtsezkoa da portaera kognitibo egoki bat izateko *(Euston et al., 2012)*. Izan ere, hipokanpoa eta mPFC-a anatomikoki norantza bakarreko bide batez daude loturik *(Godsil et al., 2013)*. Sabelaldeko hipokanpotik eta subikulutik mPFC-era doazen proiekzioak bereziki indartsuak dira. Hipokanpo-prefrontal bideak testuinguruari buruzko informazioa bidaltzen du mPFC-era, testuinguruaren, gertaeren eta erantzunen arteko asoziazioen formazio eta sendotze azkarra ahalbidetzeko. Horrela, mPFC-ak egungo testuinguruaren eta gertaeren informazioa jasotzen du hipokanpotik eta iraganeko esperientzietan oinarrituz erantzun moldagarriena iragartzen du *(Euston et al., 2012)*. Kortex prefrontal medialak, atzeranzko proiekzioak bidaltzen ditu zeharkako bideetatik, kortex perirrinal eta alboko entorrinaletik, hipokanpoko jardueran eraginez hain zuzen (2. irudia). Halaber, talamoko nuleus reuniens deritzon nukleotik hipokanpora iristen den azpikortexeko bide bat ere badago. Beraz, kortex prefrontal mediala eta hipokanpoa elkarlanean ari dira ikasketa eta oroimen prozesuak sustatzeko.

1.1.1.2. Hipokanpo eta kortex prefrontalaren anatomia

Hipokanpoa sistema linbikoaren atala da eta eskualde ezberdinek osatzen dute: hortz-jiroa (HJ), cornus ammonis 3 (CA3) eta cornus ammonis 1 (CA1) (3a. irudia). Hortz-jiroan hiru geruza bereiz daitezke: geruza molekularra, granularra eta polimorfikoa. Geruza granularrean, zelula granularren dentsitate handia dago eta hauen dendritak geruza molekularrera zabaltzen dira bertan bide zulatzaileko axoi terminalekin sinapsia egiteko. Bide zulatzaileko zuntz gutxi batzuk interneuronekin ere burutzen dute sinapsia. Granaila-zuntzak (*mossy fibers*) CA3ra proiektatzen duten zelula granularren axoiak dira. Axoi hauek zuntz kolateral batzuk ematen dituzte geruza polimorfikoan granaila zelulekin (*mossy cells*) eta somatostatina adierazten duten zelula inhibitzaileekin kontaktatzen dutelarik. Hipokanpoko CA1 eta CA3 eskualdeak ere geruza desberdinetan banatzen dira. ***Stratum oriens***-a da kanporengo geruza eta bertan, zelula piramidalen hurbileko dendritak aurkitzeaz gain, saski-zelulen eta zelula horizontalen somak ere aurkitzen dira. Zelula kitzikatzaileen somak geruza piramidalean daude. Horrez gain, geruza honetan kokatzen dira interneurona ugariren somak ere, zelula axo-axoniko edo biestratifikatuenak kasu. ***Stratum lucidum***-a CA3 eskualdean aurkitzen den geruza fin

bat da. Granaila-zuntzak CA3ko geruza honetatik igarotzen dira CA2ko mugara heldu arte. Cornus ammonis 3-ko zelulen axoiak Schafferren bide kolateralaren bidez iristen dira CA1eko zelula piramidaletaraino eta komisura zuntzen bidez kontrako hipokanpoko CA1eraino, bidean zuntz hauek ***stratum radiatum***-etik pasatzen direlarik. Zelula piramidalen urruneko dendrita apikalak bide zulatzaileko zuntzekin eta *stratum oriens*-eko zelulen axoiekin egiten duten sinapsia ***stratum lacunosum-moleculare*** geruzan. CA3ko zelula piramidalen antzera, CA1eko neuronak bide zulatzailetik informazio zuzena jaso eta subikulura bidaltzen dute. Ondoren, neurona hauek hipokanpoko seinaleak berriro kortex entorrinalera bidaltzen dituzte, begizta bat sortuz (3b. irudia).



3. irudia. Karraskarien hipokanpoko zirkuitu neuralak. Deng et al. Nature Rev Neurosci. 2010-tik hartuta.

Funtzioaren ikuspuntutik, hipokanpoko eskualde nagusietan (HJ, CA3, CA1) bi atal bereiz daitezke: eremu dortsala eta sabelaldeko eremua. Eremu dortsalak (atzeko hipokanpoa gizakietan) funtzio kognitiboak bideratzen ditu eta sabelaldeko eremua (aurreko hipokanpoa gizakietan) hipokanpo afektibotzat jotzen da *(Fanselow eta Dong, 2010)*. Ikerketa anatomikoen arabera, hipokanpo dortsalaren eta sabelaldekoaren konexio aferente eta eferenteak desberdinak dira. Hipokanpo dortsalak objektuei eta tokiei buruzko informazioa kodifikatzen duen bitartean, sabelaldeko hipokanpoak testuinguru

desberdinen arteko bereizketak nabarmentzen ditu (2. irudia). Nabigazio eta oroimen espaziala ere hipokanpo dortsalaren menpe daude *(Fanselow eta Dong, 2010)*. Azkenik, hipokanpo dortsala, baina ez sabelaldekoa, ezinbestekoa da objektu-toki asoziazioetarako *(Barker eta Warburton, 2015)* eta objektu berriei buruzko oroimenak kontsolidatzeko, era goiztiar eta atzeratuan *(Clarke et al., 2010)*. Izan ere, espazioko kokapenak kodifikatzen dituzten leku-zelula gehien hipokanpo dortsaleko CA1 eskualdean daude eta hauek, buruak espazioan duen kokapenari buruzko informazioa bidaltzen dute subikulu eta aurresubikulu dortsalera proiekzio kitzikatzaileen bidez. Hipokanpo dortsaleko CA1 eta subikulutik bidaltzen diren proiekzio nabarmenenak kortex erretroesplenial eta aurreko kortex zingulatura doaz, karraskarietan prozesamendu bisuoespazialarekin lotura zuzena duten kortikexeko bi eremuetara *(Harker eta Whishaw, 2014)*.

Kortex prefrontal mediala (mPFC) garunaren aurrealde dortsalean dagoen horma medialeko zatirik handiena da eta portaera kognitibo konplexuak erregulatzen dituen garuneko eremu nagusietako bat da. Hauen artean funtzio exekutiboak aurkitzen dira, hala nola, plangintza eta erabakiak hartzeko gaitasuna edo sari-bidezko portaera gidatua. Era berean, aipatutako funtzio hauek prozesu kognitibo sinpleagoetan oinarritzen dira, atentzio kontrolean, lan-oroimenean edo malgutasun kognitiboan, besteak beste. Gainera, mPFC-ak ere paper garrantzitsua jokatzen du oroimenen kontsolidazioan eta berreskurapenean *(Euston et al., 2012)*. Irizpide anatomiko eta funtzionaletan oinarrituta, mPFC-a aurreko kortex zingulatua, kortex prelinbikoa eta kortex infralinbikoa deritzen eremuetan banatzen da (4. irudia). Eskualde prelinbikoak atentzioan, lan-oroimenean eta erantzunen aukeraketan parte hartzen du. Aldiz, aurreko kortex zingulatuak portaeraren ordena tenporala eta sekuentzia motoreekin erlazionatutako arauak sortzen ditu. Eskualde infralinbikoaren funtzioa ez da hain ezaguna, baina kontrol autonomikoarekin zerikusia duela uste da, batez ere, beldurrarekin erlazionatutako portaerekin *(Euston et al., 2012)*.



4. irudia. Kortex prefrontaleko eskualde nagusien irudikapen eskematikoa eta bertako informazio sarrera eta irteera nagusiak. ACd, aurreko kortex zingulatu dortsala; PL, kortex prelinbikoa; DP, kortex pedunkular dortsala; VO, sabelaldeko kortex orbitala; LO, alboko kortex orbitala. Euston et al. Neuron 2012-tik hartua.

1.1.1.3. Hipokanpoaren eta kortex prefrontal medialaren aldaketak nerabezaroan

Nerabezaroa haurtzarotik heldutasunerako trantsizioa da. Nerabezaroan zehar, gizarte-jokabidean eta garapen kognitiboan aldaketak agertzen dira eta aldaketa horiek kortex prefrontal medialeko eta hipokanpoko zirkuitu neuronalen garapenarekin irmoki lotuta daude.

Nerabezaroan zehar kortex prefrontaleko sinapsien murrizketa bat gertatzen da, ustez, sinapsi glutamatergikoetan *(Petanjek et al., 2011)*. Bestalde, mielinizazioa areagotzearen ondorioz, lobulu tenporal eta frontalen bolumenak handitu egiten dira *(Benes et al., 1994)*. Gainera, garai honetan sabelaldeko hipokanpotik kortex prefrontalera doazen konexio glutamatergiko berriak sortzen dira. Kontaktu monosinaptiko hauek, kortex prefrontaleko zelula piramidal eta interneurona parbalbumina-positiboak inerbatzen dituzte *(Gabbott et al., 2002)* eta karraskarien jaio ondorengo 50. egunean heltzen dira *(Caballero et al., 2014b)*. Hipokanpoa eta kortex prefrontalaren arteko bidearen osotasuna funtsezkoa da oroimen mota desberdinetarako eta gaixotasun psikiatrikoetan bide honen konexioak ahulak dira *(Godsil et al., 2013)*.

Kortex prefrontalaren inerbazio doparminergikoa prozesu kognitiboetarako beharrezkoa da eta inerbazio hau nerabezaroan zehar heltzen da. Aurreko kortex zingulatuko zuntz dopaminergikoen dentsitatea jaio ondorengo 20. eta 35. egunen artean garatzen da guztiz. Eskualde prelinbikoan, aldiz, jaio ondorengo 60. eguneraino luzatzen da. Dopaminaren D1 eta D2 hartzaileak ere areagotuz doaz heldutasunera iritsi arte. Bestalde, terminal dopaminergikoak zelula GABAergikoen soma eta dendritekin aposizio estuan daudela ikusi da eta nerabezaroan zehar esanguratsuki areagotzen dira kortex prefrontaleko V. eta VI. geruzetan, parbalbumina-positiboak diren interneuronetan batez ere *(Caballero et al., 2016)*. Arratoi gazteetan (15-30. jaio ondorengo eguna) egindako interneurona GABAergikoen erregistroen arabera, D1 motako dopaminaren hartzaileek jaurtiketa-arineko interneuronen kitzikapena areagotzen dute; ez ordea D2 motako hartzaileek. Hala ere, jaio ondorengo 50. egunetik aurrera, interneuronek bai D1 bai D2 hartzaileak adierazten dituzte eta dopaminak kortex prefrontaleko eragin GABAergikoa areagotuko du *(Tseng eta O'Donnell, 2007)*. Beraz, deskribatutakoaren arabera, dopaminarekin erlazionatutako inhibizioaren kontrola kortex prefrontalean GABAren jarduera erraztean datza.

Orain arte aipatutako aldaketez gain, nerabezaroan seinalizazio GABAergikoak eta neurotransmisio glutamatergikoak ere aldaketa garrantzitsuak jasaten dituzte. Aldaketa hauek 1.1.2.2. atalean (Interneurona GABAergikoen heltze-prozesua) eta 1.1.3.2. atalen (NMDA hartzaileen garrantzia heltze-prozesuan, ikasketan eta oroimenean) deskribatuko dira hurrenez hurren.

1.1.2. Interneuronak

Interneuronak ezinbestekoak dira zelula kitzikatzaileen arteko elkarrekintza konplexuak doitzeko. Gaur egungo joeren arabera, interneuronen aniztasunak garunak duen indar konputazionala irudikatzen du, non interneuronek hainbat ataza burutzen dituzten *(Moore et al., 2010)*. Interneuronek ez dute soilik gehiegizko kitzikapena ekiditeko burutzen inhibizioa. Sareko eragiketa konplexuetan parte hartzen dute, hala nola, erantzunaren aukeraketan, irabazi kontrolean edo zelula kitzikatzaileen jaurtiketa patroi espazio-tenporalak doitzen eta garun oszilazioak ere sortzen dituzte. *(Wehr eta Zador, 2003; Roux eta Buzsáki, 2015)*. Garun osasuntsuetan, jarduera guzti hauek dinamikoki egokitzen dira kanpoko eskakizunei behar bezala erantzuteko. Interneuronek

ikasketa eta oroimenean duten inplikazioa ikerketa ugaritan dokumentatu da, nahiz eta azpimota bakoitzak parte hartze ezberdina izan garuneko eskualde eta atazaren arabera.

1.1.2.1. Interneuronen sailkapena

Interneurona GABAergikoak nerbio sistema zentraleko inhibizioaren iturri nagusia dira *(Jentsch et al., 2002)* eta neurona guztien %10-25a osatzen dute, garuneko eskualdearen arabera *(Le Magueresse eta Monyer, 2013)*. Interneuronetan fenotipo ugari ezberdintzen dira, hurrengo irizpide hauen arabera sailkatuz: (1) morfologia, (2) propietate elektrofisiologikoak, (3) markatzaile molekularrak: kaltzio-ligatzaileak (parbalbumina, kalretinina edo kalbindina), neuropeptidoak (somatostatina, hodi-hesteen peptidoa, Y neuropeptidoa, reelina) eta hartzaileak (5-HT3R, mGluR1, CB1), (4) zuzentzen diren neuronen domeinu azpizelularra eta (5) jatorri eta transkripzio-kontrolen arabera duten patua (5. irudia) .

Garun-kortex eta hipokanpoko interneuronen jatorria enbrioiaren azpipalioko hiru eskualdeetan dago: isats-gongoil eminentzian (IGE), gongoil eminentzia medialean (GEM) eta zona preoptikoan (ZPO). Kortex eta hipokanpoari dagokionez, IGE-k sortzen ditu interneurona gehien. Hauen artean parbalbumina adierazten duten jaurtiketa arineko saski eta argimutil zelulak (*Chandelier cells*) eta somatostatina adierazten duten interneuronak daude, azken hauek kalretinina (KR), Y-neuropeptidoa (YNP) edo reelina koadierazi dezaketelarik. Isats-gongoil eminentziak kolezistokinina (KZK), kalretinina, hodi-hesteen peptidoa (HHP), reelina eta neuroglia-formako zelulak sortzen ditu, baina ez somatostatina (SST) adierazten duten interneuronak. Sailkapen gisa erabiltzen diren molekulak, hala nola, proteina kaltzio-ligatzaileak (parbalbumina, kalretinina eta kalbindina) edo neuropeptidoak (somatostatina, hodi-hesteen peptidoa eta kolezistokinina) interneuronen azpipopulazioak desberdintzeko oso erabiliak dira ikerketa anatomikoetan eta propietate elektrofisiologikoekin korrelazioa dute.

Parbalbumina (PB) jaurtiketa arineko saski-zelula eta argimutil zeluletan aurkitzen da. Lehenak, soma eta hurbileko dendritak inhibitzen ditu eta azkenak axoien hasierako segmentua. Parbalbuminaren erdiespena neurogarapenak erregulatzen du. Hipokanpoan eta kortexean, parbalbuminaren adierazpenaren areagotze handiena jaio ondorengo lehen eta hirugarren asteen bitartean gertatzen da. Jaiotzean ez da

baina etengabe areagotzen da jaio ondorengo bigarren astean zehar. Neurogarapeneko hirugarren astean, igoera izugarria ematen da eta parbalbuminaren adierazpena apurka-apurka gehituz doa nerabezaroan zehar, 40. joe eta 55. joe bitartean heldu mailak lortzen diren arte *(Caballero et al., 2014a)*. Parbalbumina adierazten duten interneuronek ezinbesteko garrantzia dute inhibizio tonu egokia lortzeko. Inhibizioak eskualde kortikal ezberdinen aldi plastikoak kontrolatzen ditu eta, beraz, kognizioan nahita nahiezko eragina dauka.



5. irudia. Interneuronen sailkapena beraien morfologia, konektibitatea, markatzaile molekular eta propietate elektrofisiologikoen arabera. Kepecs eta Fishell. Nature. 2014-tik hartua eta moldatua.

Kalretinina (KR) adierazten duten interneuronen azpipopulazio GABAergikoak oso heterogeneoak dira. Kalretinina adierazten duten interneuronen gehiengoa zelula bipolarrak dira, bi azpipopulazio ezberdintzen direlarik: hodi-hesteen proteina adierazten duten zelula bipolarrak (HHP) eta somatostatina koadierazten duten Martinotti-bezalako zelulak. Azpipopulazio hauek isats-gongoil eminentziatik eta gongoil eminentzia medialetik datoz, hurrenez hurren. Interneurona KR-positiboak luzaroan ezezagunak izan badira ere, azken ikerketek interneurona HHP-positiboen antzeko ezaugarriak dituztela deskribatu dute *(Cauli et al., 2014)*. Zelula hauen funtzio nagusia "zirkuitu desinhibitzailea"-n zelula inhibitzaileei inhibizioa ematea da *(Gulyás et al., 1996)*. Kortex prefrontalean, zelula KR-positiboak normalean interneurona SST- eta PB-positiboetara zuzentzen dira *(Pi et al., 2013)*. Aitzitik, hipokanpoan interneurona kalbindina-positibo eta beste interneurona KR-positiboetara zuzentzen dira batik bat *(Gulyás et al., 1996)*, ustez, somatostatina ere adierazten dutenetara *(Gulyás et al., 1996; Somogyi et al., 2005)* eta ez dute interneurona PB-positiboekin kontaktatzen eskualde honetan.

Kalbindina (KB)-ren behin behineko adierazpena 21. joe-rako eskuratzen da interneuronetan. Interneurona KB-positiboek ere populazio heterogeneoa osatzen dute eta hauen artean buket-bikoitzeko zelulak (58%), zelula multipolarrak eta neuroglia-formako zelulak (31%) ezberdindu daitezke. Kalbindinaren markaketa ahula erakusten duten zelula batzuk zelula piramidalen morfologia dute neokortexeko II. eta III. geruzetan eta hipokanpoko geruza piramidal eta granularrean.

Neuropeptidoak neuronen kitzikapenaren modulatzaile dira. Neuropeptidoak neurotransmisore klasikoekin alderatuta, tamaina, sintesi eta jarduera mekanismo ezberdinak dituzte. Neuropeptidoak inguruko neuronen egoera modulatzen duten ko-transmisoreak dira. Beraien jarduera neurotransmisore klasikoena (glutamatoa eta GABA) baino askoz ere motelagoa da. Ikerketa farmakologikoek erakutsi dutenez, neokortexean adierazten diren neuropeptidoek emoziozko prozesuetan eta prozesu kognitiboetan parte hartzen dute.

Somatostatina (SST) axoi eta dendritetako besikuletatik askatzen den neuropeptido bat da *(Ludwig eta Pittman, 2003)*. Bere askapenerako frekuentzia handiko seinale aferenteak behar dira *(Kits eta Mansvelder, 2000)*. Somatostatinaren eragin zelular eta sinaptikoak nahikoa ondo ulertzen diren arren, garuneko zirkuituetan, portaeran eta kognizioan dituen ondorioak oraindik argitzeko daude *(Baraban eta Tallent,*

2004; Liguz-Lecznar et al., 2016). Somatostatina adierazten duten interneuronak oso zatikatuta dauden zuhaitz dendritikoetara daude zuzenduta eta integrazio sinaptikoa aktiboki moldatzen dute. Hipokanpoan, SST-k hiperpolarizazio postsinaptikoa eragiten du *(Pittman eta Siggings, 1981)* potasio korronteak areagotuz *(Schweitzer et al., 1998)* eta kaltzio korronteak murriztuz *(Ishibashi eta Akaike, 1995)*. Somatostatinak $GABA_B$ hartzaile presinaptikoen bidez zelula kitzikatzaileetako glutamatoaren askapena inhibitzen du *(Boehm eta Betz, 1997; Urban-Ciecko et al., 2015)*. Alabaina, SST GABAren potentzial postsinaptiko inhibitzailea murrizteko gai da, hau da, GABAren eragin inhibitzailea indargabetu dezake despolarizazio bat sortuz *(Scharfman eta Schwartzkroin, 1989; Leresche et al., 2000)*. Honek, interneurona berdinetik GABA eta SST askatzen direla iradokitzen du, baina baldintza ezberdinetan eta helburu ezberdinetarako. Gainera, SST adierazten duen interneurona azpimota espezifiko bat aurkitu da kortexeko IV. geruzan. Interneurona SST+ hauek ez dira II/III. geruzetan kokatzen diren eta I. geruzako dendrita apikaletara proiekzioak bidaltzen dituzten Martinotti interneuronen berdinak *(Ma et al., 2006)*. Laugarren geruzako interneurona SST-positiboak X-94 zelulen antzeko zelulak dira, jaurtiketa arineko zelulen ezaugarriak dituzte eta dirudienez jaurtiketa arineko interneurona PB-positiboekin kontaktatzen dute era lokalean *(Ma et al., 2006)*. Beraz, zelula SST-positiboen azpimota bat era selektiboan interneuronetara zuzenduta dauden interneurona multzo batek osatzen du eta hauek, seinale GABAergikoak bidaltzen dizkiete interneuronei beraien mintz-potentzialak erregulatzeko eta, ondorioz, aldaketa plastikoak mugatzeko.

1.1.2.2. Interneurona GABAergikoen heltze-prozesua

Interneurona GABAergikoek zelula piramidalen aktibitatea erregulatzen dute, baina jaiotza aurretiko eta jaiotza ondorengo garapenean plastikotasun kortikalean, lotura sinaptikoan eta oszilazioen sorreran ere rol garrantzitsua jokatzen dute *(Le Magueresse eta Monyer, 2013)*. Zirkuitu GABAergikoen garapenaren ezaugarrietako bat bere iraupen luzea da. Heltze-prozesua enbrioi-sasoian hasten da eta hainbat urrats ematen ditu zelularen berezko ezaugarriak guztiz garatu arte. Aldaketa guzti hauen artean hurrengoak dira aipatzekoak: GABAren askatze eta jasotzearen heltzea, neuronen gaitasuna sinapsiak osatzeko garapeneko garai zehatzetan eta zelulen seinaleztapena erregulatzen duten

proteina berezien adierazpena zelulek behin-betiko propietate elektrofisiologikoak lortzeko.

Neurogarapen goiztiarrean, GABA neurotransmisore despolarizatzailea da, zelula barruan ematen den kloro pilaketagatik. Jaio ondorengo lehen astearen inguruan, potasio-kloro kotransportatzailearen (KCC2) adierazpena izugarri areagotzen da prosentzefaloan eta GABA hiperpolarizatzaile bihurtzen da *(Rivera et al., 1999)*. KCC2-ren adierazpena lekuko neuronen jardueraren menpe dago, beraz, neuronen migrazioa gelditzeko seinale gisa balio du *(Bortone eta Polleux, 2009)*. Jaio ondorengo bigarren eta hirugarren asteetan, hainbat aldaketa gertatzen dira interneurona GABAergikoetan: 1) inmunoerreaktibitate GABAergikoaren heltzea *(Del Rio et al., 1992)*; 2) helduaroko propietate elektrofisiologiak agertzen hasten dira (jaurtiketa frekuentziaren areagotzea, frekuentzia altuko azpiatariko mintz potentzialen oszilazioak eta mintzaren erresistentzian aldaketak) *(Doischer et al., 2008; Le Magueresse eta Monyer, 2013)*; 3) kortexeko interneuronen axoi-plexuen heltzea *(Doischer et al., 2008)*. Parbalbumina adierazten duten zelulek jaio ondorengo 4-5 asteetan zehar guztiz garatzen dituzte neuritak *(Doischer et al., 2008)*. Lehen hilabetean, sinapsi GABAergikoen areagotze bat gertatzen da. $GABA_A$ hartzaileen konposaketa ere aldatuz doa neurona kortikalen garapenean zehar eta helduaroko azpiunitateak 3-4 asteetara ikus daitezke *(Laurie et al., 1992)*. Azpiunitateen truke hori neokortex eta hipokanpoko interneurona PB-positiboen potentzial postsinaptiko inhibitzaileen heltzearekin batera ematen da *(Doischer et al., 2008)*. $GABA_B$ hartzaileak, G proteinei-loturiko hartzaileak dira eta neurogarapenean zehar azpiunitate desberdinak adierazten dituzte *(Fritschy et al., 1999)* (6. irudia). Garapenari lotutako azpiunitateen adierazpenak inplikazio funtzional garrantzitsuak ditu propietate fisiologikoetan.

Interneurona GABAergikoen inhibizioa oso baxua da neurogarapen goiztiarrean eta heldutasuneko ezaugarriak nerabezaro eta heldutasun goiztiarrean lortzen dira *(Le Magueresse eta Monyer, 2013)*. Inhibizio tonuaren areagotzea PB-ren areagotzearekin bat dator *(Caballero et al., 2014a; Caballero et al., 2014b)*. Ikusi denaren arabera, nerabezaroan zehar emari glutamatergiko kitzikatzailea interneurona PB-positiboengan areagotu egiten da *(Caballero et al., 2014a)*, eta hau V-VI geruzetako potentzial inhibitzaile postsinaptiko espontaneoen frekuentziaren handitzearekin batera gertatzen da, hau da, jarduera GABAergikoaren areagotzearekin batera *(Cass et al., 2014)*.



6. irudia. Neurogarapenean zehar sistema GABAergikoan ematen diren aldaketen irudikapen eskematikoa.

1.1.2.3. Interneuronen funtzioa

Oinarrizko mikrozirkuituen funtzioak

Aurreraelikadura inhibizioak emari kitzikatzaileen aldiberekotasunaren detekzio leihoa laburtzen du neurona piramidaletan. Zelula glutamatergiko aferenteak zelula printzipalekin eta zelula GABAergikoekin paraleloan burutzen dute sinapsia *(Buzsáki, 1984)* (7. irudia). Emari inhibitzailea glutamatoak zelula piramidalengan eragindako despolarizazioa baino lehenago heltzen bada, aurreraelikadura inhibizioak mintz potentziala despolarizazio-atariaren behetik mantenduko du eta zelula kitzikatzaileen ekintza-potentzialak ekidingo ditu. Konduktantzia inhibitzailearen areagotzea eta zelula piramidalaren despolarizazioa ez badira aldiberekoak, milisegundo gutxi batzuk irauten duen desoreka iragankor bat gertatzen da inhibizioak berriz oreka berreskuratu arte. Ondorioz, interneuronek potentzial postsinaptiko kitzikatzaileen batuketa tenporala mugatzen dute eta ekintza-potentzialen sorrera eta kadentzia erregulatzen dute. Aurreraelikadura inhibizioan parte hartzen duten interneurona askok atzeraelikadura inhibizioan ere parte hartzen dute. Dena dela, hipokanpoko zelula GABAergiko batzuk

aurreraelikadurako seinaleztapenean espezializatuta daudela dirudi. Zelula espezializatu hauek, jasotzen duten aferente glutamatergikoen arabera izendatzen dira, hots, geruza molekularreko bide zulatzaileari uztartuta dauden zelulak *(Li et al., 2013)*, granaila zuntzei uztartutako interneuronak (CA3ko *stratum lucidum*-eko interneuronak) *(Vida eta Frotscher, 2000)*, eta Schafferren kolateralei uztartutako interneuronak (CA1 *stratum radiatum*-ean) *(Cope et al., 2002)*. Interneurona guzti hauek aurreraelikadura inhibizioa bideratzen dute adar dendritikoetan. Hala ere, zelula printzipalengan inhibizio perisomatikoa gauzatzen duten interneuronak ere aurreraelikadurako inhibizio iturri garrantzitsua dira. Neokortex eta hipokanpoan, parbalbumina (PB) eta kolezistokinina (KZK) adierazten duten saski-zelulak dira domeinu perisomatikora zuzentzen diren interneurona nagusiak *(Freund eta Katona, 2007; Basu et al., 2013)*. Ondorioz, kontaktatzen duten zelula piramidalen domeinuaren arabera, aurreraelikadura inhibizioak jaurtiketa dendritikoak murriztu ditzake edo zelula kitzikatzaileen seinaleak kontrolatu.

Interneurona GABAergiko ugarik parte hartzen dute atzeraelikadura edo inhibizio errepikakorren begizten sorreran, aurretik aipatutako PB+ eta KZK+ saski-zelulak barne, baina baita PB adierazten duten argimutil zelula axo-axonikoak ere. Hauek, saski-zelula PB positiboen antzera, propietate gisa jaurtiketa arina erakusten dute (7. irudia). Neokortexeko II. eta III. geruzetan, somatostatina adierazten duten Martinotti zelulak zelula printzipalen dendrita apikaletara daude zuzenduta eta atzeraelikadura inhibizioan laguntzen dute. Hipokanpoan, kortexeko Martinotti zelulen antzerakoak diren interneuronen populazio bat dago. Hauen somak *stratum oriens*-en aurkitzen dira eta beraien axoiak *stratum lacunosum-moleculare*-ra zuzentzen dira (OLM: oriens lacunosum-moleculare zelulak). Hiloko bide zulatzailera uztartuta dauden zelulak (HBZ) OLM zelulen baliokideak dira hortz-jiroan, baina zelula granularren dendritetara daude zuzenduta. Atzeraelikadura inhibizio mekanismoetan, zelula kitzikatzaileen jarduerak neurona inhibitzaile postsinaptikoak errekrutatzen ditu eta neurona inhibitzaile hauen deskargak zelula kitzikatzaileen ekintza-potentzialak ekiditen ditu *(Miles, 1990)*.

Jaurtiketa arineko interneurona PB+ bakoitzak milaka neurona piramidalekin burutu dezake sinapsia eta zelula piramidal bakoitzak hainbat saski-zeluletatik jaso ditzake seinale inhibitzaileak. Beraz, jaurtiketa arineko zelula PB-positiboen kokapena funtsezkoa da jomuga-neuronen jarduera erabakitzeko eta hau batez ere interesgarria da zelula printzipalen jaurtiketa erritmoa sinkronizatzeko *(Pinto et al., 2000)*. Bestalde, interneurona SST-positiboak zelula piramidalen urruneko dendrita apikaletara zuzentzen

direnez, dendriten arantzetara heltzen diren seinaleak doitzen edo moldatzen dituzte. Parbalbumina eta SST adierazten duten interneuronen bidez eragindako inhibizioak osagarriak dira. Inhibizio goiztiarra perisomara zuzentzen diren jaurtiketa arineko zelulek eragiten dute, oso sentikorrak direnez, estimuluari arin erantzuten diotelako. Ostera, informazio sentsoriala etengabea denean, interneurona PB-positiboek eragindako inhibizioa murriztuz joaten da. Ondoren, inhibizioa interneurona SST-positiboen esku geratzen da, hauen eragin inhibitzailearen agerpena motelagoa delako eta inhibizio berantiarra dela esan ohi da *(Pouille eta Scanziani, 2004)*.



7. irudia. Mikrozirkuitu inhibitzailearen antolaketaren irudikapen eskematikoa. PB, parbalbumina; SST, somatostatina; HHP: hodi-hesteen proteina; KR: kalretinina

Interneuronak ezinbestekoak dira portaera kognitibo arrunterako

Interneuronen artean aniztasun handia dago, baina PB eta SST adierazten duten interneuronak ikertu dira gehien. Somatostatinak ikasketa eta oroimenean funtsezko rol bat duela jakina da, somatostatina-hartzaileen knock-out (KO) saguek ikasketa espazialean defizita erakusten baitute *(Dutar et al., 2002)*. Horretaz gain, zahartzaroan gizakien eta arratoien kortexean SST gutxiago dagoela ikusi da eta hau ikasteko gaitasunaren murrizketarekin dago korrelazionatuta *(Dournaud et al., 1995)*. Bestalde,

SST-ren injekzio intrahipokanpal eta intrabentrikularrek ikasketa espaziala hobetzen dutela ikusi da hainbat atazetan *(Vécsei et al., 1984; Lamirault et al., 2001)*. Hiloko interneuronen isiltze optogenetikoak (gehienak SST adierazten dute) ikasketa eta oroimen espaziala eten zuten Morrisen ur labirintoan, epe laburreko lan-oroimenean, koordinazio motorean eta jarduera esploratzailean eraginik izan gabe *(Andrews-Zwilling et al., 2012)*.

Interneurona PB-positiboen neurotransmisio inhibitzailearen asaldatzea ere oroimen urritasunarekin dago erlazionatuta. Adibidez, interneurona PB-positiboetatik ziklinaren menpeko kinasa 5-aren erauzketa genetikoak hiperinhibizio batera darama eta, era berean, amigdalaren menpe dauden testuinguru eta pistak eragindako beldur-oroimenak murrizten ditu eta erreferentzia oroimen espaziala kaltetzen du Morrisen ur labirintoan *(Rudenko et al., 2015)*. Gainera, kortex prefrontal medialeko jaurtiketa arineko interneurona PB-positiboak rol garrantzitsua jokatzen dute sari-bidezko portaera gidatuan, lan-oroimenean eta malgutasun kognitiboan *(Murray et al., 2015)*, eta beraien isiltze optogenetikoak atentzio prozesamendua hondatzen du, hau informazio berria eskuratzeko beharrezkoa delarik *(Kim et al., 2016)*. Hipokanpoko CA1eko zelula PB-positiboen desaktibazio funtzionalak interneurona hauek lan-oroimen espazialerako beharrezkoak direla egiaztatu dute *(Murray et al., 2011)*. Are gehiago, M1 azetilkolinaren hartzaile muskarinikoa interneurona PB-positiboen geneetatik ezabatuta duten sagu KO-ek ezagutza memoria urrituta daukate eta, neurri txikiagoan, lan-oroimen espaziala murriztua dute *(Yi et al., 2014)*. Bestalde, interneurona PB-positiboetan NMDA hartzailearen neurotransmisiorik ez duten sagu mutanteak kognizio mailan hutsegite selektiboak erakusten dituzte, hala nola, lan-oroimenean eta ikasketa asoziatiboan *(Carlén et al., 2012)*.

Interneurona mota desberdinak ez daude bata bestearengandik isolatuta, baizik eta zirkuitu-mailan funtzionatzeko konektatuta daude. Gutxi dira interneurona ezberdinen arteko elkarrekintzak ordena-altuko funtzio kognitiboetan duen eragina aztertu dutenak. Kortex prefrontal medialeko jaurtiketa arineko interneurona PB-positiboak helburura-zuzendutako portaera gidatzen duten arren, interneurona SST-positiboek ere parte hartzen dute, bi hauek aurkako jarduera erakusten dutelarik *(Kim et al., 2016)*. Aurreko kortex zingulatuan, saritutako atazen fase ezberdinetan parte hartzen dutela erakutsi zuten Kvitsiani eta lankideek *(Kvitsiani et al., 2013)*, non interneurona SST-positiboak saritutako gunera hurreratzean aktibatzen ziren eta interneurona PB-positiboak saritutako zona uztean erantzuten zuten eta aurreko egonaldiaren denbora kodifikatzen zuten.

Behaketa hauek interneuronak adierazpen kognitibo arrunt baterako beharrezkoak direla nabarmentzen dute eta, dirudienez, kognizio egokia bermatzen duten zirkuitu kortikalen dinamika koordinatzeko, interneurona azpimota bakoitzaren funtzioa espazio-denboran bananduta dago, rol osagarriak betez.

Inhibizioaren aurkako erregulazioa oroimenaren jabetze eta finkatze prozesuetan

Hainbat ebidentziak iradokitzen dute inhibizioaren eta desinhibizioaren arteko elkarrekintzak rol garrantzitsua jokatzen duela ikasketa eta oroimenaren formakuntzan. Iragankorra eta espezifikoa den inhibizioak kausazko inplikazioa du ikasketarekin erlazionatutako plastikotasunean, hain zuzen ere. Lehen ebidentziek SST adierazten duten interneuronen jarduera basala mugimenduan eta sentsazio aktiboan zehar murriztuta zegoela azpimarratu zuten *(Urban-Ciecko eta Barth, 2016)*. Azken urteotan, interneurona PB-positiboen estimulazio farmakologikoek eta optogenetikoek erakutsi dutenez, beraien jarduerak entzumen beldur ikasketa hondatzen du *(Letzkus et al., 2011)*. Froga hauetan oinarriturik, autore batzuk desinhibizioa plastikotasun sinaptikoaren eta ikasketaren mesedegarri den mekanismo orokor bat izan daitekela proposatu dute *(Letzkus et al., 2015)*. Izan ere, Gambino eta Holtmaatek *(Gambino eta Holtmaat, 2012)* zuzenki egiaztatu zuten kortex somatosentsorialean desinhibizioak epe-luzeko potentziazioa errazten zuela. Hipotesi honen euskarri dira baita beste lan batzuetan aurkitutako emaitzak. Denbora luzez jakin da interneurona PB-positiboen inhibizioaren murrizketa iragankor batek edo beraien sare perineuronalak kentzean ikusmen kortexeko aldi kritikoa berriz irekitzen dela begi-dominantziaren plastikotasuna areagotuz *(van Versendaal et al., 2012)*. Aitzitik, interneurona PB-positiboen aurreraelikaduraren aktibazioa beharrezkoa da amigdalaren menpe dagoen beldur ikasketarako *(Wolff et al., 2014)*. Era berean, barril kortexeko IV. geruzan SST adierazten duten interneuronen zenbakia areagotu egiten da baldintzapen klasikoko ikasketa aldian *(Cybulska-Klosowicz et al., 2013)*. Halere, azken kasu hauetan interneuronen jardueraren efektua sarean berdina izango litzateke: zelula piramidalen desinhibizioa. Ustez, amigdalako interneurona PB-positiboek SST adierazten duten interneuronak isiltzen dituztenez eta IV. geruzako interneurona SST-positiboak interneurona PB-positiboetara zuzendutako zirkuitu desinhibitzaileko parte direnez, beraien jarduerak dudagabe zelula piramidalen ekintza-potentzialak bermatuko lituzkete. Honekin bat, sabelaldeko eskualde

tegmentaleko proiekzio GABAergikoak accumbens nukleoko interneurona kolinergikoen aktibitate espontaneoa geldiarazten dute ikasketa asoziatiboa hobetzeko *(Brown et al., 2012)*. Guzti hau kontutan izanik, ikasketan zehar desinhibizioak aldaketa plastikoak errazten dituela esan genezake, zeinek espezifikotasun handiz integrazio sinaptikoa aktiboki moldatzen duen, ziur aski esperientziak eragindako plastikotasun sinaptikorako garrantzitsuak diren frekuentzia-handiko ekintza-potentzialak ahalbidetuz *(Golding et al., 2002; Kampa et al., 2007)*.

Azken behaketek, ikasketa prozesua bukatu ondorengo zirkuituen plastikotasunean inhibizioaren areagotzeak duen rolaren garrantzia azpimarratu dute. Cornus ammonis 1 (CA1)-eko SST-positiboak diren *oriens-lacunosum moleculare* (OLM) zelulek eragindako inhibizio dendritikoa beharrezkoa da beldur-oroimenak eratzeko (*Lovett-Barron et al., 2014)*. Halaber, asoziazio ikasketa burutu eta gero, seinaleztapen GABAergikoaren areagotze bat dago: GABAren kontzentrazio presinaptikoak handitzen dira, gune postsinaptikoetan $GABA_A$ hartzailearen α1 azpiunitatea gorantz erregulatzen da eta korronte postsinaptiko inhibitzaile espontaneoen frekuentzia handitzen da *(Tokarski et al., 2007; Jasinska et al., 2010)*. Interneurona SST-positiboak ere GABA eta SST gehiago adierazten dute ikasketa asoziatiboa eta gero *(Cybulska-Klosowicz et al., 2013)*. Azken pare bat urteetan, ikerketa gutxi batzuk esan dutenez, interneurona PB-positiboen azpimultzo ezberdinak ikasketa eta oroimen prozesuetako fase ezberdinetan dihardute. Esperimentu hauen arabera, interneurona mota bakoitzaren azpimultzo desberdinak espezifikotasun handiz erantzuten diote ataza desberdinei, interneurona mota bakoitzak eragindako inhibizioa are gehiago zatikatu daitekeela iradokiz garunaren gaitasun konputazionala handitzeko. Donato eta lankideek *(Donato et al., 2015)* jaiotze berantiarreko PB-positiboak diren saski-zelulak ataza berrien jabetzean daudela inplikatuta diote eta, berriz, jaiotza goiztiarreko PB-positiboak diren saski-zeluletan aldaketa plastikoak arauen finkapenaren ondoren gertatzen dira. Interneuronen berariazko interneurona HHP-positiboek eragindako inhibizioak jaiotze berantiarreko neurona PB-positiboetan paper garrantzitsua jokatzen du ikasketarekin-erlazionatutako plastikotasun sinaptikoan *(Donato et al., 2015)*. Honekin bat, interneurona PB-positiboen inhibizio farmakologikoak plastikotasun sinaptiko estrukturala hobetu zuen eta antzerako joera ikusi zen labirintoko nabigazioko entrenamendu fasean edo ingurune aberastuan haztean. Bestalde, interneurona PB-positiboen aktibazioak balioztatutako arauen finkapena sustatu zuen *(Caroni, 2015)*. Beranduago, Lager eta lankideek *(Lagler et al., 2016)* PB

adierazten zuten saski-zelulak jaurtiketa patroi ezberdina zuten neurona talde ezberdinetan biltzen zirela erakutsi zuten oroimenez-gidatutako aukeraketa portaeran, zelula mota bakar baten barruan, atazarekin erlazionatuta egon daitezkeen espezializazioak daudela aditzera emanez.

Aurkikuntza hauek ikasketa eta oroimen prozesuetan kitzikapen/inhibizio orekak egiten duen ekarpenaren ulermena hobetzen laguntzen dute. Gero eta ebidentzia fidagarri gehiagok desinhibizioak neurotransmisio kitzikatzailean laguntzen duela eta ikasketarako mekanismo orokorra izan daitekeela adierazten dute. Bestalde, arauen finkapenak konfigurazio inhibitzaile altu baten beharra du *(Donato et al., 2013; Donato et al., 2015)*, ikasketarekin erlazionatutako aldaketa plastikoak eta oroimenaren formakuntza inhibizio mailak zehazten duela iradokiz. Beraz, oreka egoki hau nahasten duen edozein faktorek eragin kaltegarriak izan ditzake kognizioan.

1.1.3. N-metil-D-asparato (NMDA) hartzaileak

1.1.3.1. NMDA hartzaileen estruktura eta sintesia

N-metil-D-aspartato (NMDA) hartzaileak 4 azpiunitate ezberdinez osatuta daude, derrigorrezko NR1 azpiunitateaz eta hautazko NR2 (A, B, C edo D) edo NR3 (A edo B) azpiunitateez, heterotetramero bat osatuz. NR3 azpiunitateak garapen goiztiarrean aurkitzen dira batez ere; NR2 azpiunitateek kanalaren irekitzea erregulatzen dute; NR2A azpiunitatea nerbio sistema zentraleko azpiunitaterik ugariena da; aldiz, NR2B prosentzefaloan eta hipokanpoan da nagusi *(Monyer et al., 1994)*.

NMDA hartzailearen azpiunitateen konbinazioen arabera, NMDA hartzaileen propietate elektrofisiologikoak aldatu egiten dira. NR1-NR2B konbinazioak NR1-NR2A konplexuak baino potentzial postsinaptiko kitzikatzaile luzeagoak ditu *in vitro (Monyer et al., 1994)*. NMDA hartzaileen azpiunitateek plastikotasun sinaptikoan parte hartzen dute baita: hartzaile jakin bateko azpiunitateen adierazpenaren aldaketak hartzailearen propietate funtzionalak aldatu ditzake. Izan ere, NR2Bren txertatzeak sinapsien aldiberekotasunerako denboraldia luzatu dezake, beraz, eraginkortasun sinaptikoa hobetuz eta, ondorioz, oroimenean eraginez *(Yashiro et al., 2008)*.

NMDA hartzailaren azpiunitateak lotune guneetan ere desberdintzen dira: NR1 azpiunitateak glizina lotzeko guneak ditu eta NR2 azpiunitateak glutamatoa lotzeko guneak. Glizinak ko-agonista bezala jokatzen du, hau da, bere lotura beharrezko baldintza bat da NMDA hartzailearen aktibazioa bermatzeko. D-serinak ere ko-agonista bezala joka dezake NMDAR-ren B-glizina guneetara lotzen denean (8. irudia). Mintzeko potentzia atseden-egoeran dagoenean, magnesio ioiak kanalaren poroetan sartzen dira eta ioien fluxua ekiditen dute. Magnesioaren blokeoa aldaratzeko eta, beraz, ioien fluxua bermatzeko, mintzaren despolarizazioa gertatu behar da. Ondorioz, magnesioak sortzen duen blokeoa gainditzea NMDA hartzaileen aktibazioa bermatzeko beste baldintza bat izango da. Heterotetrameroaz gain, NMDA hartzaileek dentsitate postsinaptikoak dituzte, sinapsi glutamatergikoei egituran eta funtzioan egonkortasuna ematen dieten proteina multzoak.



8. irudia. N-metil-D-aspartato (NMDA) hartzailearen irudikapen eskematikoa. Mg2+, magnesio ioiak; PCP: fenziklidina.

1.1.3.2. NMDA hartzailearen garrantzia heltze-prozesu, ikasketa eta oroimenean

Glutamatoak zelula barneko jauziak aktibatzen ditu hartzaile ionotropiko eta metabotropikoen bidez. Glutamatoa neurogarapenerako ezinbestekoa da sinaptogenesia, sareko plastikotasuna, dendriten adarkatzea, eta neurona aitzindarien hedatze eta migrazioa erregulatzen dituelako *(Snyder eta Gao, 2013)*. Jaio ondorengo neurogarapen goiztiarrean NMDA hartzaileak dira glutamatoaren hartzaile bakarrak, AMPA hartzaile funtzionalik ez baitago *(Ben-Ari et al., 1997)*. Hori dela eta, NMDA hartzaileak garuneko heltze-prozesuarekin irmoki lotuta daude. NMDA hartzaileen azpiunitateen adierazpena

eta funtzioa hipokanpoaren garapen egokirako beharrezkoa da. Izan ere, hartzaile hauen erregulazio ezak sinaptogenesian eta zirkuituen heltze-prozesuan akatsak sortzen ditu *(Brigman et al., 2010)*.

NMDA hartzailearen jarduera ere funtsezkoa da interneurona PB-positiboen heltze-prozesuan *(Zhang eta Sun, 2011)*. NMDA hartzailearen seinaleztapena neurogarapen goiztiarrean etenez gero, zelula GABAergikoen jardueraren epe-luzeko murrizketa gertatzen da eta honek, kortex prefrontal medialeko zelula piramidalen desinhibizioa sortzen du *(Belforte et al., 2010; Moreau et al., 2013)*. Kortex prefrontal medialean, tangentzialki migratzen ari diren interneuronen aitzindarietan NMDA hartzaileak adierazten dira *(Soria eta Valdeolmillos, 2002)*. Garuneko zirkuituen heltzea NMDA hartzailearen azpiunitateen aldaketarekin bat dator, gaztaroko prozesamendu neuraletik heldutasunerako trantsizioa markatuz. NR2 azpiunitatearen aldaketa zelula-espezifikoa da kortex prefrontalean: zelula piramidaletan NR2B-ren maila egonkorra da heldutasuneraino, baina jaurtiketa arineko interneuronetan NR2B azpiunitatea pixkanaka NR2A azpiunitatearekin ordezkatzen da, batez ere nerabezaroan *(Wang et al., 2008; Wang eta Gao, 2009)*. Garapenean zehar plastikotasun-atarian gertatzen diren aldaketei azalpena eman diezaiokeen mekanismoetako bat NR2B azpiunitatean gertatzen diren aldaketak dira. Azpiunitate hau duten NMDA hartzaileek zinetika moteleko korronteak erakusten dituzte, kaltzio korronteen batuketa tenporala ahalbidetuz. NR2A azpiunitatea duten NMDA hartzaileak, aldiz, zinetika arinagoa dute, kaltzio seinaleen bereizmen tenporal handiago bat ahalbidetuz. Azpiunitateek jasaten dituzten aldaketen ondorioz, NMDA hartzaileak arrisku faktoreekiko bereziki sentikorrak bihurtzen dira. Hala, ingurumen faktoreek zein faktore genetikoek garun garapen arraunta kaltetu dezakete *(Spear, 2000)*.

NMDA hartzaileek oinarrizko funtzioa betetzen dute garunaren plastikotasunean eta, beraz, ikasketa eta oroimenean. Transmisio sinaptiko kitzikatzaileak erregulatzeko duten ahalmenari esker eragiten dute NMDA hartzaileek ikasketa eta oroimen prozesuetan: epe-luzeko potentziazioaren (ELP) bidez sinapsiak indartu dezakete edo hauek ahuldu epe-luzeko depresioaren (ELD) bidez *(Yashiro et al., 2008)*. NMDA hartzaileen bidezko kaltzio fluxua da ELP eta ELD-ren arduraduna eta, aldi berean, bi mekanismo hauek deskribatu dira ikasketa eta oroimenaren erantzule zelular gisa. Gainera, NMDA hartzaileak jarduera pre- eta postsinaptikoen aldiberekotasuna

nabarmentzeko gai dira eta korrelazio tenporal honek ekintza pre- eta postsinaptikoen denboraren araberako plastikotasuna ahalbidetzen du.

1.2. Eskizofreniaren aurrekari neuropatologikoak

Eskizofrenia ezgaitasun psikiatrikoa da eta bere etiopatogenia oraindik ez dago guzti argituta. Gaur egunera arte, garuneko ikerketak gaixotasun neurologikoetan zentratu dira gehienbat, eta gaixotasun mentalei buruzko ikerketak azken hamarkadetan areagotu dira, batik bat. Informazio gabezia honek eskizofreniaren oinarri neurobiologikoen ulermena eragotzi du eta medikuak eskizofreniaren diagnostikoa sintometan oinarrituta egitera behartuak ikusi dira. Eskizofrenian sintoma positiboak, negatiboak eta kognitiboak agertzen dira *(Saha et al., 2005)*. Sintoma positiboak ohiz kanpoko funtzio mentalen irudi dira, hala nola, haluzinazioak eta eldarnioak. Sintoma negatiboen artean, besteak beste, isolamendu soziala, motibazio eza eta sentipen lautuak daude. Sintoma kognitiboak funtzio exekutibo eskasekin daude erlazionatuta, batez ere, arretaren eta oroimenaren hutsegiteekin. Sintoma hauen agerpen tipikoa nerabezaro berantiar eta heldutasun goiztiarraren artean gertatzen da *(Saha et al., 2005)*, neurogarapeneko prozesuek paper garrantzitsu bat jokatzen duten arren eskizofrenian. Eskizofreniaren etiologiari buruz hainbat teoria proposatu dira, hala nola, joera genetikoa *(Greenwood et al., 2013; Singh et al., 2014)*, jaio aurreko infekzioak *(Labouesse et al., 2015)*, ingurumeneko eraginak *(Pishva et al., 2014)* edo aurretik aipatutako faktoreen konbinazioa *(Uher, 2014)*. Eskizofrenia izateko arriskua areagotzen duten geneak eskizofrenian etenda-1 (DISC-1), disbindina eta neuroregulina-1 (NRG-1) dira, besteak beste *(Le Magueresse eta Monyer, 2013; Salgado eta Sandner, 2013)* (9. irudia).

1.2.1. Gizakietan egin diren aurkikuntzak

Azken bi hamarkadetan eskizofreniaren disfuntzio kognitiboaren jatorria ulertzeko ahalegin asko egin dira. Hori dela eta, prozesu kognitiboek dituzten oinarri neurobiologikoak ulertzeko interes handia dago. Gaur egun, medikamentu antipsikotikoak eraginkorrak dira sintoma positiboak gutxitzeko, baina onura urria dute kognizioan. Arazo kognitiboek gaixo eskizofrenikoei eguneroko bizitzan eragiten diote

eta ezgaitasun kronikoari eta langabeziari oso lotuta daude *(Green et al., 2000)*. Hala ere, gaur egungo tratamenduak edo terapiak ez dira gai sintoma kognitiboak arintzeko. Disfuntzio kognitiboak sakon eragiten du eta beste sintomekiko mendekotasunik ez du erakusten *(Gold, 2004)*. Ezaugarririk nabarmenena lan-oroimen gaitasun murriztua da, batez ere informazio kantitate handiak batera prozesatu behar direnean *(Silver et al., 2003; Barch et al., 2006)*. Kortex prefrontal dortsolaterala (KPFDL) lan-oroimenaren hutsegiteetan dago inplikatuta eta eskaner bidez egindako garun ikerketek behin eta berriz erakutsi dute KPFDL-ren aktibazioan alterazioak daudela eskizofrenia duten gizabanakoetan, batez ere, ataza kognitiboak egiten arin direnean *(Arnsten eta Jin, 2014; Brunoni eta Vanderhasselt, 2014; Wolf et al., 2015)*. Eskizofrenia duten gaixoek ikasketa asoziatiborako gaitasuna ere murriztuta dute eta hau kortex prefrontaleko eta hipokanpoko zirkuituen anatomia eta funtzioarekin lotu dute.

9. irudia. Eskizofreniaren sorreran parte hartzen duten arrisku faktore nagusien sailkapena.

Interneurona GABAergikoen heltze-prozesuaren asaldura baten ebidentziak ere aurkitu dira eskizofrenian. Hainbat ikerketetan garapenean zehar interneuronen migrazio oker bat gertatzen dela ikusi dute. Lehenik, gaixo eskizofrenikoen substantzia zurian interneuronen dentsitatea handiagoa da *(Eastwood eta Harrison, 2003; Joshi et al., 2012)*. Bigarrenik, eskizofrenia jasateko sentikortasunari lotuta dagoen DISC-1 genearen beheratze bat eta gero, gongoil eminentzia medialetik datozen interneuronen migrazio tangentzialean aldaketak nabarmentzen dira *(Steinecke et al., 2012)*. Azkenik, neurorregulina-1 (NRG-1) eta bere hartzaile den ErB4 ere eskizofrenia jasateko arriskuari

lotuta daude eta ErB4 interneurona inhibitzaileetan baino ez da adierazten, batez ere, PB-positiboak diren interneuronetan *(Fazzari et al., 2010)*. Gainera, kitzikapen/inhibizio zirkuituen oreka galdu egiten dela dirudi. Alde batetik, saski-zelula eta zelula piramidalen arteko sinapsietan $GABA_A$ hartzailearen α1 azpiunitatearen adierazpena murriztuta dagoela aurkitu da eta argimutil zeluletan α2 azpiunitatearen areagotzea ikusi da *(Volk et al., 2002)*. Bestalde, sinapsi axo-axonikoak ere murriztuta daude eta sagu-ereduetan ikusi denez, PB-positibo diren saski-zeluletan sinapsi glutamatergiko gutxiago daude *(Zheng et al., 2011)*. Emaitza hauek parbalbumina adierazten duten interneuronen konexioak garapenean zehar ezegokiak direla erakusten dute eta honen ondorioz heldutasunean sarearen aktibitate eta plastikotasun aberranteak eman daitezke. Halaber, nerabezaro berantiarrean sistema GABAergikoan ematen diren aldaketa nabarmenek eta eskizofreniaren sintomen sorrerak adin mendekotasun profil berbera dute.

Post mortem egindako ikerketek kortex prefrontal eta hipokanpoko alterazio GABAergikoak eskizofreniaren sorreran inplikatuta daudenaren ideia are gehiago indartzen dute. Batez ere, parbalbumina eta azido glutamiko deskarboxilasa 67 (GAD67)-aren beherakada da aurkikuntzarik trinkoena gaixo eskizofrenikoen kortex prefrontalean *(Volk et al., 2000; Zhang et al., 2002; Hashimoto et al., 2003)*, aldi berean kalretinina eta kalbindina interneuronen inmunoerreaktibitatea galdu gabe *(Reynolds et al., 2004; Gonzalez-Burgos et al., 2015)*. Parbalbumina eta GAD67-ren adierazpena aktibitate kortikalak erregulatzen duenetik *(Qin et al., 1994; Gierdalski et al., 1999)*, beraien gabeziak gaixo eskizofrenikoen interneurona PB-positiboetan, interneurona PB-positiboen jardueraren gabezia edo beherakada bat adierazten du. Interneurona mota guztietatik beherakada soilik PB duten zeluletara zergatik mugatzen den jakin ez arren, PB-ren adierazpenaren aldaketek garapenean zehar proteina hau duten zelulak bereziki kalteberak direla egiaztatu dute.

Berriki, *post mortem* egindako garunen ikerketek somatostatinaren proteina, somatostatinaren mRNA adierazpenena eta neuropeptido hau duten interneurona GABAergikoak ere murriztuta daudela erakutsi dute gaixo eskizofrenikoetan *(Joshi et al., 2015; Alherz et al., 2017)*. Hashimoto eta lankideek *(Hashimoto et al., 2008)* PCR bidez erakutsi zuten, eskizofrenia zuten gaixoen KPFDL-ean, SSTren mRNAn %44ko beherakada ematen zela kontrol osasuntsuekin alderatuta, eta batezbesteko %57ko beherakada aurreko kortex zingulatuan eta ikusmen kortex primarioan. Zelula mailan, SST-ren adierazpen erlatiboa zelulako ere gutxituta zegoen %31n II/III geruzetan eta

%25ean KPFDL-ko V. geruzan *(Morris et al., 2008)*. Era berean, Konradi eta lankideek *(Konradi et al., 2011)* beherakada esanguratsua aurkitu zuten SST adierazten zuten interneuronen zenbaki eta dentsitatean, eta baita somatostatinaren mRNAren adierazpen mailan eskizofrenian. Emaitza hauek iradokitzen dutenez, interneurona PB-positiboetaz gain, beste interneurona mota batzuk ere egon daitezke eskizofreniari lotuta.

1.2.2. NMDA hartzaileen hipofuntzioa eskizofreniaren substratu patofisiologiko gisa

Eskizofreniari dagokionez, dopaminaren hipotesia izan da ideiarik iraunkorrena psikiatrian. Eredu hori dopamina-hartzaileen antagonistek efektu antipsikotikoak zituztela ikusi ondoren proposatu zuten. Izan ere, gaixo eskizofrenikoen sistema linbikoan hartzaile horien gehiegizko adierazpena aurkitzen da. Hala eta guztiz ere, dopaminaren hipotesiak ez du eskizofreniaren patogenesia guztiz azaltzen, medikamentu antipsikotikoak gaixotasunaren sintoma positiboetarako eraginkorrak baitira, baina sintoma negatiboak eta kognitiboak ez dituztelako hobetzen. Gaur egun, D2 hartzaileen gehiegizko aktibazioa nahasmendu honen sinapsietan ikusten diren desoreka kimiko orokorren efektu bat baino ez dela uste da *(Seeman eta Kapur, 2000)*.

Azken frogek gizabanako eskizofrenikoetan ezohiko transmisio glutamatergikoa eta NMDA hartzaileen hipofuntzio bat dagoela onartzen dute *(Snyder eta Gao, 2013)*. Lehenik eta behin, eskizofrenia izateko arriskua handitzen duten gene askok NMDAR-n bidezko seinaleztapenarekin dute zerikusia *(Moghaddam, 2003; Harrison eta Weinberger, 2005)*. Eskizofrenia garatzeko arrisku geneak neuronen ugaritzea, migrazioa eta sinaptogenesia erregulatzen dute. Bigarrenik, gaixo eskizofrenikoen garunetan NMDA hartzailearen NR1 azpiunitatea murriztua egoteak, NMDA hartzailearen funtzioa asaldatuta dagoenaren idea sendotzen du *(Weickert et al., 2013)*. Hirugarrenik, NMDA hartzailearen adierazpen baxua duten sagu transgenikoek eta NMDA hartzailearen antagonismoko animalia-ereduek eskizofrenia gogorarazten duten sintomak erakusten dituzte. NMDA hartzailearen antagonistek portaera aldaketak sortzeaz gain, eskizofreniarekin zerikusia duten alterazio metaboliko eta neurokimikoak ere eragiten dituzte *(Morris et al., 2005)*. Gainera, gero eta onartuago dago eskizofrenia

neurogarapeneko nahasmendu bat dela eta garuneko garapen goiztiarrari eragiten diola *(Lewis et al., 2008; Nakazawa et al., 2017)*.

1.2.3. Eskizofreniaren MK-801 animalia-eredua

Animalia-ereduak baliagarriak dira gaixotasun ugariren mekanismo fisiopatologikoak argitzeko eta tratamendu berriak garatzeko. Nahasmendu psikiatrikoak ikertzeko animalia-ereduak erabiltzearen oztopo nagusietako bat beraien oinarri neurobiologikoen ezagutza gutxi dugula da. Gainera, eskizofrenia giza nahasmendua dela iradoki dute, batez ere pertzepzioari, pentsamenduari, hizkuntzari eta arretari eragiten diolako. Ezaugarri hauek behe-mailako ugaztunetan modelatzeak zeresana eman du, baina eskizofreniaren prebalentzia handiak (biztanleriaren %1) eta gaixotasunaren ondorio kaltegarriek animalia-ereduak erabiltzearen beharra justifikatzen dute.

Hainbat hurbilketa planteatu dira eskizofrenia karraskarietan modelatzeko eta hiru talde nagusitan bana daitezke: neurogarapeneko ereduak, eredu genetikoak eta eredu farmakologikoak. Neurogarapeneko ereduen artean, haurdunaldian zehar sortutako zailtasunak daude, hala nola, ernaldiko malnutrizioa edo jaio aurretik gripe birusaren eraginpean jartzea *(Salgado eta Sadner, 2013)*. Eragile goiztiarrak ere erabili izan dira neurogarapeneko ereduetan, adibidez, kumeak amarengandik banatzea edo isolamendu soziala *(Jones et al., 1992; Geyer et al., 1993)*, baina normalean eredu genetiko edo farmakologikoekin batera *(Gilabert-Juan et al., 2013)*. Jaioberrien sabelaldeko hipokanpoko lesioak ere anitz erabili izan dira, baina eragindako kaltea eskizofrenian baino askoz ere larriagoa da *(Daenen et al., 2003; Rueter et al., 2004)*. Dena dela, hurbilketa guzti hauen kausazko rola zalantzagarria da. Eskizofrenia oso heredagarria da eta gaixotasunaren osagai genetikoa ezin da alde batera utzi. Geneek eta ingurumen faktoreek elkarri eragiten diote eta elkarreragin horrek nahasmendua azaleratuko den edo ez erabakiko du. Animalia-eredu genetiko batzuk gaixotasuna xehetasun handiz kopiatzen dute, baina eskizofrenian gene ugarik hartzen dute parte eta hauek faktore estokastiko eta ingurumenekoekin duten elkarrekintza konplexua dela eta, eskizofrenia animalia-eredu genetikoen bidez bakarrik errepikatzea ezinezkoa bihurtzen da *(Green et al., 2010)*.

NMDA hartzailearen antagonista ez-lehiakorren animalia-ereduak dira gaur egun hobeen deskribaturiko eredu farmakologikoak. Fenziklidina (PCP) eta ketaminak psikosia eragiteko gai dira gizaki osasuntsuetan eta gaixo eskizofrenikoetan sintoma positiboak areagotzen dituzte *(Lahti et al., 2001)*. Honek eskizofreniaren patofisiologian NMDA hartzaileen parte hartzea iradokitzen du. NMDA hartzaile ez-lehiakorren efektua ez da guztiz ezagutzen, baina neurotransmisio glutamatergiko, dopaminergiko eta GABAergikoarekin interakzio konplexuak izan ditzakeela dirudi *(Grüter et al., 2015)*. Glutamatoaren transmisioan ematen diren aldaketak eskizofrenian ikusten diren sintoma negatibo eta kognitiboekin erlazionatuak izan dira. NMDA hartzaileen antagonistek, dopaminak ez bezala, eskizofreniaren kognizio eta arreta defizitak aztertzeko balio dute *(Marcotte et al., 2001; van der Staay et al., 2009)*. Autore batzuk diotenez, NMDA hartzaileen antagonistek ez dituzte neurogarapeneko prozesuak kontutan hartzen, batez ere dosi akutuak erabili izan direlako eta epe motzeko ondorioak neurtu direlako, epe luzeko efektuak aztertu beharrean. Hala eta guztiz ere, azken urteetan NMDA hartzaileen antagonisten administrazio kroniko eta azpikroniko errepikatuak eman izan zaizkie animaliei jaio ondorengo garai goiztiarrean eskizofreniaren defizit kognitiboak modelatzeko eta epe luzeko portaera aldaketak aztertu dira (nerabezaroan edo heldutasunean) *(Bubeníková-Valesová et al., 2008; Lim et al., 2012)*. MK-801, dizolzipina bezala ere ezagutzen dena, NMDA hartzaile ez-lehiakorren artean farmakorik selektiboena eta indartsuena da eta, beraz, zabal erabili da eskizofrenia animalia-ereduak sortzeko karraskarietan *(Wong et al., 1986)*.

MK-801-ek NMDA hartzailea fisikiko blokeatzen du kanal barruan sartuz, PCP-ren guneetara lotuz eta kanalean zehar katioien fluxua saihestuz. NMDA hartzaileen blokeoak glutamatoaren gehiegizko askapena eragiten du eta bai blokeatutako neuronan bai garuneko beste eskualde batzuetan eragin kaltegarriak izan ditzake. Izan ere, MK-801-k efektu proapoptotikoak ditu farmakoa eman ondorengo epe motzean. Bide apoptotikoak aktibatzeko duen gaitasuna NMDA hartzailearen blokeoaren iraupenaren eta indarraren araberakoa da. Normalean, 0.25mg/kg baino dosi handiagoak dira beharrezkoak atzeraezina den endekapena eta zelularen heriotza eragiteko *(Ikonomidou et al., 1999)*. Zelularen heriotza aktibatzeko mekanismoak ez daude guztiz argi, baina neurogarapen goiztiarrean NMDA hartzailea ERK1/2-CREB bideei lotzea beharrezkoa da bere akzio neurotrofikoetarako eta dirudienez, MK-801-k eragindako zelulen heriotza NMDA hartzailea ERK1/2 seinaleztapen bidetik disoziatzearen ondorioa da *(Lim et al.,*

2012). Ikonomidou eta lankideek *(Ikonomidou et al., 1999)* esandakoaren arabera, MK-801-ek eragindako zelulen heriotzak bakarrik neuronei eragin zien, zelula glialen aktibaziorik gabe. Azken hamarkadako ikerketek, ostera, eskizofrenia duten gaixoetan gliaren narriadura dagoela iradokitzen dute, hala nola, glia zelulen tamaina txikiagoa kortex prefrontalean eta glia zelulen disfuntzioa kortex prefrontal eta hipokanpoan *(Cotter et al., 2001; Kondziella et al., 2007)*. MK-801-ek eragindako kalteen minberatasunak NMDA hartzaileen adierazpen altuarekin eta garunaren hazkundearekin du zerikusia. NMDA hartzailearen antagonismoaren ondoren, glutamatoaren gehiegizko askapena dago eta honek eragindako exzitotoxizitatea bide apoptotikoetatik at doa, hazkuntza konoen aktibitatea eta neuriten luzapen eta adarkatzeari erasanez *(Ringler et al., 2008)*. *Post mortem* aztertutako gaixo eskizofrenikoen garunetan ere lesio neuronalak ikus daitezke, esate baterako, dendriten atrofia *(Garey, 2010)*.

Glutamatoak eragindako exzitotoxizitateak ondorio funtzional handiak ditu. Interneurona GABAergikoak zelula piramidalak baino hamar aldiz sentikorragoak dira NMDA hartzaileen antagonismoarekiko *(Grunze et al., 1996)*. Bereziki, PB adierazten duten jaurtiketa arineko interneuronak dira sentikorrenak, antza, eta haien alterazioa nahikoa da portaeran eskizofreniaren sintomak diruditen antzeko ezaugarriak sortzeko. Hainbat ikerketek frogatu dute MK-801-aren administrazio errepikatuek PB-ren inmunoerreaktibitatea gutxitzen dutela. NMDA hartzaileen blokeo kronikoak arratoi gazte eta helduetan interneurona PB-positiboen dentsitatea murrizten du hipokanpoan, batez ere hortz-jiroan eta CA1 eskualdean *(Rujescu et al., 2006; Braun et al., 2007)*. Neurogarapeneko ereduak ere aurkikuntza hauek errepikatzeko gai izan dira, baina normalean 0.5mg/kg baino gehiagoko dosiak behar dira epe luzeko aldaketa estruktural eta anatomikoak sortzeko *(van der Staay et al., 2011)*. Dosi handi hauek ez dituzte bakarrik hipokanpoko PB dentsitateak aldatzen, baita kortex prefrontal medialeko zelula PB-positiboenak ere, eta eskualde hau orden-altuko funtzio kognitiboetarako beharrezkoa da *(Coleman et al., 2009; Li et al., 2015)*. Are gehiago, Nakazawa eta lankideek *(Nakazawa et al., 2012)* sagu transgenikoak erabiliz, NMDA hartzaileak kortexeko eta hipokanpoko interneurona GABAergikoetatik kentzeak nahikoa zela eskizofrenia-bezalako ezaugarriak agerrarazteko erakutsi zuten. Kaltetutako interneurona gehienek PB inmunoerreaktibitatea zuten, izan ere. MK-801 administratu ondoren jaurtiketa arineko zelula PB-positiboen sentikortasun selektiboaren mekanismoak jakiteke daude oraindik, baina hainbat hipotesi plazaratu dira. Jaurtiketa arineko zelulek potasio kanal berezi bat

dute, hots, Kv1.3 kanala, eta honek mintzaren errepolarizazio arin bat bermatzen du hurrengo ekintza-potentziala azkar sortzeko. Frekuentzia altuko ekintza-potentzialak jaurtitzean NMDA hartzaileen irekitze probabilitatea askoz ere handiago da jaurtiketa arineko zeluletan, frekuentzia baxuagoan jarduten diren beste zelula GABAergikoekin edo zelula kitzikatzaileekin alderatuz. MK-801 farmako ez-lehiakorra denetik, ioi kanala irekita egon behar da hartzailea blokeatu ahal izateko eta, beraz, jaurtiketa arineko NMDA hartzaileak blokeatzeko aukera handiagoa dute. Wang eta Gao-k *(Wang eta Gao, 2012)* beste mekanismo bat deskribatu zuten. Ikerketa elektrofisiologikoen bidez eta MK-801-en dosi azpikronikoak erabiliz zelula piramidaletara edo jaurtiketa arineko interneuronetara zuzendutako terminal glutamatergikoetako NMDA hartzaileak MK-801-en ondorioz ezberdin zeudela aldatuta erakutsi zuten. NMDA hartzaile presinaptikoak oso garrantzitsuak dira neurotransmisoreen askapena errazteko eta modulatzeko. Autore hauen arabera, MK-801-k guztiz blokeatu zituen jaurtiketa arineko interneuronetara zuzenduta zeuden terminal glutamatergikoetako NMDA hartzaileak eta, aldiz, zelula piramidalekin kontaktatzen zuten terminal presinaptikoetan NMDA hartzaile berrien txertaketa ahalbidetu zuen. Datu hauek are gehiago berresten dute NMDA hartzaileen blokeoaren mekanismo sinaptikoak zelula mota desberdinekiko espezifikoak direla. Bi hipotesi hauek ez dira bateraezinak eta ziur aski MK-801-k NMDA hartzaileak hainbat mekanismoren bidez aldatzen ditu, baina guztiak emaitza berdinarekin: interneurona PB-positiboen azpijarduera, kortexeko zelula piramidalen desinhibizio orokor bat eraginez. Bestalde, NR2C eta NR2D azpiunitateak dituzten NMDA hartzaileak bereziki kalteberak izan daitezkeela proposatu dute hauek magnesioarekiko duten afinitate baxua dela eta *(Kotermanski et al., 2009)*. NR2C daukaten NMDA hartzaileak interneurona PB+ eta SST+-etan baino ez dira adierazten eta NR2D azpiunitatea jaurtiketa arineko interneuronetan adierazten da batez ere *(von Engelhardt et al., 2015)*.

1.3. Ingurune aberastua

1.3.1. Ingurune aberastuaren kontzeptua

1940ko hamarkadaren amaieran Hebb izan zen ingurune aberastua (IA) kontzeptu esperimental gisa lehenengo aldiz proposatu zuena. Etxean maskota gisa hezitako arratoiek laborategiko arratoiekin alderatuz portaera hobekuntzak zituztela ikusi zuen *(Hebb, 1947)*. 1960ko hamarkadaren hasieran, Rosenzweig eta lankideek ingurune aberastua testa daitekeen kontzeptu zientifiko bezala proposatu zuten *(Rosenzweig et al., 1962)*. Lehen ikerketek, "garunaren pisua" edo "garunaren proteina totala" bezalako parametroak erabili zituzten ingurumeneko estimuluen efektuak aztertzeko *(Rosenzweig et al., 1969)*. Bestalde, hainbat ikerketek ondorioztatu zuten ingurunearen estimulazioak erantzun plastikoa eragiten zuela, erantzun hau aldaketa biokimikoetan, adarkatze dendritikoan *(Holloway, 1966; Greenough eta Volkmar, 1973)*, gliogenesian *(Altman eta Gas, 1964; Diamond et al., 1966)*, neurogenesian *(Kempermann et al., 1997)* eta ikasketa prozesuan islatzen zelarik.



10. irudia. Baldintza estandarren (a) eta ingurune aberastuaren (b) irudikapen eskematikoak. Bengoetxea H et al. Neural Plast. 2012-tik hartua.

Ingurune aberastuaren definizio estandarra hurrengo hau da: "bizigabeko objektuen eta gizarte-estimulazioaren konbinaketa konplexua". Egoera esperimentalean, "aberastutako" animaliak kaiola eta talde handiagotan bizi dira, non harreman sozial konplexuagoak edukitzeko aukera duten. Ingurunea konplexua da eta ikerketak dirauen bitartean, inguruneko ezaugarriak aldatu egiten dira konplexutasuna mantentzeko helburuarekin. Hala, ingurune aberastuko kaiolak tunelez, habia egiteko materialez eta

jolas ezberdinez ornituta daude. Gainera, materialen zein janariaren kokapena maiztasunez aldatzen da. Bestalde, animaliei borondatezko ariketa fisikoa egiteko aukera ematen zaie kaioletan gurpil bat jarriz (10. irudia).

Ingurune aberastuak estimulazio sentsorial, motore eta kognitiboen konbinazio konplexua baimentzen du eta honek molekula, zelula eta portaera mailako aldaketak eragiten ditu (11. irudia). Ingurune aberastuko elementu desberdinek bakarka ere efektu esangarriak izan ditzakete garun plastikotasunean. Adibidez, borondatezko ariketa fisikoak zelulen ugaritzea eta neurona berrien integrazioa bideratzen du hortz-jiroan *(van Praag et al., 1999)*. Bestalde, ingurune berri baten eraginpean jartzeak soilik oroimen espaziala hobetu dezake *(Yang eta Tang, 2011)*. Ingurune aberastuaren definizioan ezin da faktore bakoitzaren eragina erraz isolatu. Izan ere, ingurune aberastuko osagai bakoitzaren efektua besteengandik guztiz banatzea oso zaila da eta neurtzen den parametroaren araberakoa izan daiteke. Hala ere, arrazoi nahikoa daude ingurune aberastuaren funtsezko elementua faktore ezberdinen elkarrekintza dela onartzeko.



11. irudia. Ingurune aberastuan egon ondoren gertatzen diren aldaketa erakusten dituen diagrama.

Ingurune aberastuaren iraupenak eta denboraldiak eragin handia dute lortutako emaitzetan *(Amaral et al., 2008)*. Ikerketa anitzetan, IA garai goiztiarrean hasten da, hala nola, jaiotze egunean edo edoskitzearen amaieran. Kasu hauetan, ingurumen konplexuan hazteak antsietate-bezalako portaera murrizten duela frogatu da, besteak beste *(Hendershott et al., 2016)*. Animali helduak inguren aberastuan ezartzeak ere efektu ditu

(Beauquis et al., 2010; de Witt et al., 2011). Hala ere, gutxieneko IA-ren iraupen bat beharrezkoa da portaera eta aldaketa morfologiak gerta daitezen. Denboraldi hau aste bete eta lau aste bitartean ezarri da, beti ere aztertzen den espeziearen eta parametroaren araberakoa izanik. Esaterako, heldutasunean IA-n bitartekotza motz bat (10 egunekoa) nahikoa da neurogenesia, sare baskularra eta dendriten konplexutasuna hipokanpoan areagotzeko *(Beauquis et al., 2010)*. Bestalde, IA-ko esposizio motzak (6h/eguneko) etengabeko IA-ren hobekuntzen antzerakoak dira funtzio motoreei eta kognitiboei dagokienez *(de Witt et al., 2011)*. Gainera, ingurune aberastuak eragindako onuren iraunkortasuna, IA-ren iraupenaren araberakoa da. Zenbat eta luzeagoa izan IA-ren iraupena, orduan eta denbora gehiagoz irauten dute efektu onuragarriak.

1.3.2. Ingurune aberastuak eragindako aldaketa kognitibo eta estrukturalak

Ingurune aberastua eraginkorra da ikasketa eta oroimen funtzioak hobetzeko eta zahartzaro osasuntsuan ematen den disfuntzio kognitiboa murrizteko gai dela baieztatu da. Ingurune aberastuan hazitako animaliek baldintza estandarretan hazitako animaliek baino hobeto egiten dute espazio-oroimeneko proba Morrisen ur labirintoan. Era berean, IA-n hazitako animaliek, kaioletan isolatuta baina ariketa fisikoa egiteko gurpila duten animaliek baino lan-oroimen espazial hobea dutela egiaztatu da *(Bernstein, 1973)*. Ingurune aberastuak eragiten dituen onura kognitiboak, partzialki honek duen efektu antsiolitikoaren bidez azaldu daitezke. Izan ere, IA-n hazitako sagu zein arratoiek antsietate-bezalako portaera murriztua erakusten dute “igotako gurutze labirintoan” (Elevated Plus Maze) eta eremu irekiko proban, aldi berean jarduera esploratzailea areagotuz *(Hendershott et al., 2016)*.

Ingurune aberastuan bizi diren karraskariek aldaketa estruktural esanguratsuak jasaten dituzte, esateko, garun tamaina eta pisu handiagoa edota kortexeko zelulen nukleoen tamaina handiagoa *(Diamond et al., 1967)*. Ingurune aberastuak hipokanpoko neurogenesia areagotzen du arratoi gazte eta helduetan eta, aldi berean, diferentziatutako zelula granularren biziraupena bermatzen du hortz-jiroan. Ingurune aberastuari buruzko lehen ikerketek erakutsi zutenez, hipokanpoko hortz-jiroko zelula granularrak eta CA1 eta CA3ko zelula piramidalak dendrita gehiago zuten neuronako *(Walsh et al., 1969;*

Altschuler, 1979). Beranduago, IA-k dendriten adarkatzea eta arantzen dentsitatearen areagotzea eragiten zuela baieztatu zen *(Globus et al., 1973)*, kontaktu sinaptiko berrien sorrera ondorioztatuz. Hala ere, IA-ren ondoren kortexeko bolumenaren areagotzea ezin zaio soilik neurogenesiari eta sinaptogenesiari atxiki, angiogenesia eta gliogenesia ere ikusi izan baita *(Altman eta Das, 1964; Diamond et al., 1966; Greenough eta Volkmar, 1973)*. Baskularizazioaren areagotzeak glukosaren erabilgarritasuna eta zitobabesleak diren faktoreen askapena erraztuko luke. Ingurune aberastuak plastikotasun sinaptikoarekin erlazionatuta dauden gene-adierazpena modulatzen duela jakin arren, ikasketa eta oroimenean duen efektu onuragarrien mekanismo molekular zehatzak argitzeke daude.

1.3.3. Hazkuntza faktoreak Ingurune Aberastuak eragindako aldaketen bitartekari

Hazkuntza faktoreak neuropeptido familia handi bat dira eta zelula kanpoko seinaleztapenerako garrantzitsuak dira. Hala, nerbio sistema zentraleko zelula aitzindari eta ama zelulen ugalketa eta desberdintze prozesuak erregulatzeko ezinbestekoak dira *(Calof, 1995)*. Baldintza estandarretan hazitako animalietan, garapen garaia edozein dela ere, hazkuntza faktoreek zelulen ugalketa eta biziraupena, axoi eta dendriten hazkuntza eta birmoldaketa, mintzen trafikoa eta fusioa zein sinapsien sorkuntza, funtzioa eta plastikotasuna sustatzen dute.

Ingurune aberastuak gene adierazpena eta hazkuntza faktore desberdinen proteina mailak areagotzen ditu, adibidez, nerbio-hazkuntza faktorea (NGF) *(Mohammed et al., 1990; Pham et al., 1999)*, garunetik eratorritako hazkuntza faktorea (BDNF) *(Falkenberg et al., 1992)*, gliatik eratorritako faktore neurotrofikoa (GDNF) *(Young et al., 1999)* edo hazkuntza faktore endotelial-baskularra (VEGF) *(During eta Cao, 2006)*. Ikerketa asko burutu dira helduen garunetan faktore hauen rola zehazki ezagutzeko. Dirudienez, organismo helduetan faktore hauek neurogenesian, plastikotasun sinaptikoan eta ikasketan parte har dezakete. Adibidez, intsulina-bezalako hazkuntza faktoreen infusio intrazerebrobentrikularrak neurogenesia areagotzen du arratoien hortz-jiroan *(Aberg et al., 2000)*.

Era berean, BDNF-k plastikotasun sinpatikoan eta IA-ri loturiko hobekuntza kognitiboan funtsezko rola jokatzen du *(Novkovic et al., 2015)*. Hipokanpotik BDNF-ren genea ezabatzen denean, "Objektu berrien ezagutza" eta Morrisen ur labirintoan ikasketa espaziala baliogabetzen dira *(Heldt et al., 2007)*. Hazkuntza faktore honek Tropomiosin Kinasa B hartzailea (TrkB) aktibatzen du neuronen diferentziazio, biziraupen eta plastikotasun sinaptikoa eraldatzeko hainbat seinalizazio jauziren bidez, hala nola, ERK edo Akt (12. irudia).



12. irudia. Tropomiosin kinasa B hartzailearen (TrkB) beherantzako seinaleztapen bideek zelulen biziraupena eta diferentziazioa, axoien hazkuntza eta jarduera sinaptikoa erregulatzen duten proteinen sintesia ahalbidetzen dute. Begni et al. Clinical Science. 2016-tik hartua eta moldatua.

2. Hipotesia

Ingurune aberastua (IA) erabilera anitzeko eta balio terapeutiko handiko tresna da. Zahartze osasuntsuan eta neuroendekapeneko gaixotasunetan dituen efektu onuragarriak balioztatuak izan diren arren, gaixotasun neuropsikiatrikoetan duen balio potentziala ez da sakon aztertu. Ingurumen faktoreek eskizofreniaren agerpena ahalbidetu dezakete, beraz, gaixotasunaren sorrera edo areagotzea saihesteko gaitasuna ere badute. Eskizofreniaren inguruko ikerketen erronka nagusietako bat garunean era iraunkorrean kalteturik dauden zirkuituak aldatzen saiatzea da, eskizofrenia neurogarapeneko desoreka bada ere, sintomak nerabezaroan edo heldutasun goiztiarrean agertzen baitira.

Ingurune aberastuak eskizofreniaren sintoma kognitiboengan ondorio onuragarririk duen edo ez aztertzeak interes handia du, bai prebentzio tresna gisa, bai sendabide gisa. Arazo kognitiboengan eragin positiboa izan dezakeen interbentzio ez-farmakologikoa litzateke. Izan ere, ingurune aberastuak eragindako geneen aktibazio eta proteinen sintesiak interneuronen adierazpena eta haien jarduera areagotu dezake. Honek, aldi berean, eragin zuzena izango luke portaeran eta kognizioan. Aldaketa hauek eskizofreniaren galera kognitiboak arintzeko funtsezkoak lirateke.

Beraz, lan honen helburua MK-801 bidez sortutako eskizofrenia animalia-ereduan, bai portaeran zein maila zelularrean eta molekularrean garatutako alterazioak ingurune aberastuaren bidez nola aldatzen diren aztertzea da.

Honenbestez, tesi hau garatzeko honako **hipotesia** landu dugu:

Ingurune aberastuak hazkuntza faktoreen, NMDA hartzaileen, kaltzioari loturiko proteinen eta neuropeptidoen adierazpena modulatzen du bai kortex prefrontal zein hipokanpoan eta guzti hauek aldatuta daude eskizofrenian. Hala, heldutasunaren hasieran animaliak denbora labur batez ingurune aberastuan haziz gero, eskizofreniaren esparruan sor daitezkeen defizit kognitiboak gainditzeko estrategia egokia izango litzateke.

3. Helburua

3.1. Oinarrizko helburua

Neurogarapen goiztiarrean, MK-801 administratu zaien arratoi helduetan ingurune aberastuak alterazio kognitibo eta neurokimikoetan duen eragin positiboa egiaztatzea, eta hobekuntza hauen oinarri molekularrak aztertzea.

3.2. Helburu operatiboak

1. Funtzio kognitibo desberdinak aztertzea: ezagutza memoria "objektu berrien ezagutza" atazaren bidez, memoria asoziatiboa "objektua-tokian" atazaren bidez eta memoria bisuoespaziala "Morrisen ur labirintoaren" bidez.

2. Aldaketa estrukturalak analizatzea: kortex prefrontal medialeko eta hipokanpoko bolumenaren neurketa, eta butiril kolinesteraren aurkako histokimiaren bitartez sare mikrobaskularraren luzeraren estimazioa.

3. Interneuronen azpipopulazio desberdinen eta neurona kopuru totalaren kuantifikazioa: ordenagailuz lagundutako estereologiaren bidez, parbalbumina, kalretinina, kalbindina, somatostatina, azido glutamiko deskarboxilasa eta NeuN proteinen aurkarko inmunohistokimien kuantifikazioa kortex prefrontalean eta hipokanpoan.

4. Aldaketa molekularrak analizatzea: Western Blot teknikaren bitartez, NMDA hartzaileen azpiunitateen, dentsitate postsinaptikoa-95 proteinaren (PSD-95), $GABA_A$ hartzailearen ß2/3 azpiunitatearen, garunetik eratorritako hazkuntza faktorearen (BDNF) eta TrkB-ren adierazpenaren, zein hauekin erlazionatutako zelula barneko seinaleztapen-bideen aldaketa erlatiboen kuantifikazioa.

5. Ingurune aberastuak aurrez izendatutako parametroetan duen onura potentzialen identifikazioa.

4. Material eta metodoak

4.1. Animaliak

Long Evans arratoi emeak kume arrekin erosi ziren Janvier Labs enpresan (Frantzia). Jaiotze eguna, 0 jaio ondorengo eguntzat (joe) hartu zen eta 21. joe izan zen edoskitze amaiera. Animali guztiak argi/ilunpeko hamabi orduko ziklotan hazi ziren (argiak 8etan piztuz) eta ura eta janaria ad libitum izan zuten esperimentu guztian zehar. Prozedura guztiak 2007/526/EE Europako Gomendioarekin bat zetozen, eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Animaliekin egiten diren Esperimentaziorako Etika Batzordearen oniritziarekin egin ziren (CEEA/410/2015/LAFUENTE SANCHEZ).

4.2. Prozedura farmakologikoak

4.2.1. MK-801-aren administrazioa

MK-801 [(5S,10R)-(+)-5-Metil-10,11-dihidro-5H-dibenzo[a,d] ziklohepten-5,10-imina hidrogeno maleatoa, Dizozilpina hidrogeno maleatoa] Sigma-Aldrichen erosi zen (Erref: M107, St. Louis, MO, EEBB). Aurretiaz egindako ikerketetan oinarrituta, 0.5mg/kg-ko dosia aukeratu genuen, dosi honek portaera alterazio iraunkorrak eragiten baititu *(van der Staay et al., 2011)*. MK-801 kloruro sodikoa %0.9an (NaCl) diluituz eta injekzio intraperitonealaren bidez administratu zitzaien arratoi kumeei 10. joe-tik 20. joe-ra. Animali kontrolak NaCl-aren bolumen berdina jaso zuten (VH: eramailea soilik daramaten animalien taldea). Injekzioak goizeko 9etan ematen zitzaizkien. Tratamenduak iraun bitartean, animaliak egunero pisatu ziren eta hortik aurrera bi astetik behin. MK-801-aren stock soluzioa NaCl-tan prestatu eta -20ºC-tan gorde zen, 2.5mg/ml-ko kontzentrazioan. Stock soluzioa erabiltzerako orduan NaCl-tan diluitu zen 0.5mg/ml-ko kontzentraziora.

4.2.2. BrdU-ren administrazioa

Talde bakoitzeko 6 animalik timidinaren analogoa den 5'bromodesoxiuridina-ren (5'BrdU, Sigma-Aldrich, Espainia) injekzio intraperitoneal bakarra jaso zuten NaCl-tan. Bihotzean zeharkako perfusioa burutu baino 24h arinago eman zitzaien 200mg/kg-ko dosi batean.

4.3. Talde esperimentalak

Lau talde esperimental desberdin erabili ziren (n=10-12) (13. irudia):

a) **VH:** Laborategiko baldintza estandarretan hazi eta 10. joe-tik 20. joe-ra NaCl jaso zuten arratoiak.
b) **MK-801**: Laborategiko baldintza estandarretan hazi eta 10. joe-tik 20. joe-ra MK-801 (0.5mg/kg) jaso zuten arratoiak.
c) **MK-801+EE:** 0. joe-tik 55. joe-ra laborategiko baldintza estandarretan eta 55. joe-tik 73. joe-ra ingurune aberastuan hazitako animaliak. Talde honetako animaliek 10. joe-tik 20. joe-ra MK-801-n injekzioak (0.5mg/kg) jaso zituzten.
d) **VH+EE:** 0. joe-tik 55. joe-ra laborategiko baldintza estandarretan eta 55. joe-tik 73. joe-ra ingurune aberastuan hazitako animaliak. Talde honetako animaliek 10. joe-tik 20. joe-ra NaCl-aren injekzioak jaso zituzten.

13. irudia. Tratamendu farmakologiko eta hazkuntza baldintzen kronograma. Joe, jaio ondorengo eguna; IA, ingurune aberastua (EE, Enriched Environment).

Laborategiko baldintza estandarretan, 2-3 animali hazi ziren 500 x 280 x 140 mm tamainako kaioletan. Ingurune aberastuko kaiolak 720 x 550 x 300 mm-ko tamaina daukate eta 6 animali hazi ziren kaiola bakoitzean. Kaiola hauek tamaina eta kolore desberdinetako hainbat objektu dituzte (tunelak, aterpeak, jolasak, etab.) eta hauek bi egunetik behin aldatzen zaizkie. Horrez gain, ingurune aberastuko kaioletan borondatezko ariketa fisikoa egiteko gurpil bat zuten erabilgarri. Baldintza desberdinetako prozeduren sailkapena 13. irudian ikus daiteke.

4.4. Portaera proba eta ataza kognitiboak

Portaera atazetarako 10-12 animali erabili genituen taldeko. Ingurune aberastuan zeuden animaliak, baldintza berdinetan mantendu ziren atazen iraupenean zehar. Animaliak 21. joe eta 24. joe-etan Eremu irekiko proba (EIP) burutu zuten, MK-801-aren epe laburreko efektuak ikusteko. 55. joe-ean eta 73. joe-ean testatu ziren berriz EIP-n antsietate-bezalako portaera eta lokomozioa neurtzeko. Morrisen ur labirintoa (MUL) 65. joe eta 70. joe-en bitartean burutu zen. Ondoren, Objektu berrien ezagutza (OBE) eta Objektu-tokian ataza (OT), 71. joe-ean eta 72. joe-ean egin ziren, hurrenez hurren (14. irudia).



14. irudia. Portaera atazen kronograma. EIP, Eremu irekiko proba; MUL, Morrisen ur labirintoa; OBE, Objektu berrien ezagutza; OT, Objektu-tokian ataza; BE, baldintza estandarrak; IA, ingurune aberastua. Joe, jaio ondorengo eguna.

4.4.1. Eremu irekiko proba

Berezko lokomozio-jarduera Eremu Irekian neurtu genuen (15. irudia). Jardueraren detekzioa erabat automatizatua zegoen Actitrack diseinu pertsonalizatutako softwarearen bidez (Panlab, Espainia). Eremu irekia plexiglasez egindako eremu karratu bat zen (44 x 44 x 35 cm), animalien detekzio egokia lortzeko 16 x 16 cm-ko infragorrizko bi habe paraleloz inguratuta zegoelarik. Esparrua bi zatitan bananduta zegoen, erdialdeko gunea eta gune periferikoa. Arratoi bakoitza esparruaren erdian jarri eta bere jarduera 10 minutuz erregistratu zen. Erdian eta periferian egindako desplazamendu horizontalak neurtu ziren. Saiakera bakoitzaren ondoren, esparrua %96ko alkoholarekin garbitzen zen. Animali bakoitzak lau sesio egin zituen jaio ondorengo 21., 24., 55. eta 73. egunetan.

Esparruaren erdialdean egindako distantzia erlatiboa formula honen bidez lortu zen: 100 x [erdialdean mugitutako distantzia / periferian mugitutako distantzia].



15. irudia. Eremu irekiko proba. (a) Eremu irekiko esparrua eta Actritrak tresna. (b) Esparruko erdigunearen eta periferiaren goiko ikuspegiaren irudikapen eskematikoa.

4.4.2. Morrisen ur labirintoa

Morrisen ur labirintoa karraskarien ikasketa eta oroimen espaziala neurtzeko erabiltzen da eta hauek inguruan dauden aztarnak erabiliz ur azpian dagoen plataformara nabigatzeko duten gaitasunean oinarritzen da. Esperimentu honetarako, 175 cm-ko diametroko igerilekua 22 ± 1ºC tenperaturako urez bete eta pintura zuri ez-toxikoarekin ura opaku bihurtu zen. Jomuga den plataforma zuria uretan murgildu zen, uraren gainazaletik 2 cm-ra. Lau ikusmen-aztarna jarri ziren igerilekua inguratzen zuten errezeletan (16. irudia). Arratoiak lau puntu kardinaletatik askatzen ziren egunero, eta abiatze-puntu horiek egunero aldatzen ziren probak iraun bitarteko 5 egunetan ausazko modu batean. Plataforma, aldiz, toki berdinean mantendu zen proba guztian zehar. Saiakera bakoitzean, arratoiak paretari begira askatzen ziren eta 120 segundoz uzten zitzaien igeri egiten plataformarekin topo egin arte eta ondoren, 30 segundoz uzten ziren bertan. Arratoiak 120 segundotan plataforma aurkitzeko gai ez baziren, ikertzaileak gidatzen zituen animaliak bertara. Saioen arteko tartea 20 minutukoa zen. SMART Bideo Jarraipen Softwarea (Panlab. SL, Bartzelona) erabili zen ibilbideak grabatzeko. Software honen bidez, ihes-latentzia, ibilbidearen luzera, igeri-abiadura eta jomugarako batezbesteko distantzia parametroak neurtu ziren saiakera bakoitzeko. Bost eguneko

ikasketa prestakuntza eta gero, seigarren egunean plataforma kendu eta erreferentzia oroimena aztertzeko jomugarako batezbesteko distantzia (JBD) parametroa neurtu zen. JBD hurbiltasun neurri bat da eta parametro hau ohiko eta ezagunagoak diren "helburuko koadrantean egindako denbora" edo "plataforma gurutzatze zenbakia" bezalako parametroak baino sentikorragoa eta fidagarriagoa da *(Maei et al., 2009)*. Arratoiei azken azterketa bat egin zitzaien ageriko plataforma saioan, arazo bisual eta motoreak izanez gero, animaliak analisitik baztertzeko.



16. irudia. Morrisen ur labirintoaren irudikapen eskematikoa. Ezkutatutako plataforma lerro etenen bidez adierazten da. Lau aztarna bisual jarri ziren plataforma inguruan, koadrante bakoitzean bana, animaliak orientatzeko.

4.4.3. Objektu berrien ezagutza

Objektu berrien ezagutza (OBE) atazak animaliek objektu berriak antzemateko duten gaitasuna neurtzen du eta karraskariek inguruneko objektu berriak esploratzeko duten berezko joeran oinarritzen da. Ataza honek 3 fase ditu: ohitura, jabetze eta ezagutza faseak. Ohitura fasean, arratoiak banan-banan jarri ziren 90 x 90 x 40 cm-ko esparru huts batean 10 minutuz ingurunea askatasun guztiz miatu zezaten. 90 minutu igaro ondoren, animaliak jabetze fasea burutu zuten. Fase honetan, plastikoz egindako bi objektu berdin (Legoko piezez eginak) jarri ziren eremuan eta objektu bakoitza esploratzen igaro zuten denbora neurtu genuen 5 minutuko iraupeneko proban. Arratoiak paretari begira askatu ziren hertsapena ekiditeko asmoz. Saio arteko 90 minutuko tartea eta gero, arratoiak berriz itzuli ziren eremura 3 minutuko ezagutza probarako, non objektu ezagunetako bat objektu berri batengatik aldatu zen (17. irudia). Objektu berria objektu ezagunaren

material berdinarekin zegoen eginda. Proba honetan ez genuen aztarna bisualik erabili.



17. irudia. Objektu berrien ezagutzarako atazaren irudikapen eskematikoa. Ezkerretara, esparru hutsa ohitura faserako. Erdian, jabetze fasean erakusten zaizkien bi objektu berdinak. Eskuinean, ezagutza fasea, non objektu ezagun bat berri batengatik aldatu den.

4.4.4. Objektua-tokian ataza

Objektua-tokian ataza (OT) Objektu berrien ezagutza atazaren oso antzekoa da. Ataza hau aukera bakarreko ezagutza oroimena ebaluatzeko proba bat da eta ez du prestakuntzarik edo indargarririk behar. Objektua-tokian asoziazio proba bat da, non animaliek objektu bat aurretiaz ikusitako toki konkretu batekin erlazionatu beharko duten. Objektu berrien ezagutzarako erabilitako esparru eta material berdinak erabili ziren ataza honetan. Jabetze fasean, altura berdintsuko lau objektu erabili ziren. Bi ikusmen aztarna jarri ziren esparruko paretetan orientazio espaziala hobetzeko (18. irudia). Arratoiak esparruaren erdian jarri eta objektuak esploratzeko 5 minutu eman zitzaien berriz kaiolara bueltatu aurretik. 90 minututako atxikitze tartea igaro ondoren, ezagutza fasean, bi objektu lekuz aldatu ziren. Hala, 3 minututako proban zehar mugitutako eta ez-mugitutako objektuak esploratzen emandako denbora neurtu zen. Objektu-toki asoziazio-oroimen egoki bat izanez gero, animaliak denbora gehiagoz ariko dira mugitutako objektuak esploratzen, mugitu ez diren objektuekin alderatuz.

Bai OBE bai OT atazetan, hiru minutuko proba nahikoa sentikorra da azterketa edo ezagutza faserako. Iraupen luzeagoa duten probek objektuen ezagutza gutxitu dezakete, objektu berria gero eta ezagunagoa bihurtzen baita denbora pasa ahala. Animali batzuk objektu edo toki konkretu batzuk nahiago izan ditzaketela kontutan hartuta, objektuak eta

beraien kokapena aldatzen joan ginen animali desberdinen artean. Argi ahul batek argitzen zuen esparrua argi-isladak ekidinez. Usain aztarnak saihesteko asmoz, esparrua %96ko alkoholarekin garbitzen zen saiakera bakoitzaren ondoren.

Bi ataza hauetan, animaliek objektuak usaindu, aurreko zangoekin ukitu edo zentimetro batetik behera zuzenki begiratzen ziotenean hartzen genuen esploraziotzat. Gutxienez, 5 minututako jabetze fasean zehar 12 segundoz esploratu behar zituzten objetuak animalia analisian sartu ahal izateko. Bereizketa indizea hurrengo formula hau erabiliz lortzen da: (DB - DE) / (DB + DE) [DB = objektu berria edo mugitutako objektuak esploratzen eman duen denbora, DE = objektu ezaguna edo mugitu gabeko objektuak esploratzen eman duen denbora].



18. irudia. Objektua-tokian atazaren irudikapen eskematikoa. Ezkerretara, Objektu berrien ezagutza eta Objektua-tokian atazaren artean igarotako denbora. Erdian, jabetze fasean aurkeztutako lau objektuak koadrante bakoitzean kokatuta. Paretetako bi ikusmen aztarnek informazio espaziala eskuratzen laguntzen dute. Eskuinean, azterketa edo ezagutza proban bi objektu lekuz aldatuta daude.

4.5. Inmunohistokimia

Analisi inmunohistokimikoa talde bakoitzeko 6 animalitan burutu zen. Pentobarbital anestesikoaren farmako-gaindosi bat erabiliz sakrifikatu ziren animaliak. Ondoren, bihotzean zeharreko perfusioa burutu zitzaien, lehenengo serum fisiologikoarekin (kloruro sodikoa %0.9an ur destilatuan) odoleztatze-sistemako hematiak garbitzeko asmoz eta garbiketaren ondoren, ehunaren finkatzea burutu zen

paraformaldehidoa %4 gatz fosfato tanpoian (PBS) 0.1M (pH 7.4) erabiliz. Garbiketa eta finkatze prozesuak presio konstanteko perfusio bonba baten bidez egin ziren, 12 mmHg presiopean. Ehunen finkatzea animalia hil ostean ehuna ez endekatzeko egiten da, honela arratoiaren ehuna bizi egoeraren antzerako egoera batean gordetzeko. Finkatzeak zelula barneko elementuen insolubilizazioa bideratzen du eta ehunari gogortasun puntu bat ematen dio errazago maneiatu ahal izateko.

Perfusioaren ostean, garuna garezurretik atera eta finkatzerako erabili zen substantzia berdinean post-finkatu zen 24 orduz 4ºC-tan. Ondoren, garun osoak sakarosa %30ean duen PBS 0.1M soluzioan sartu ziren kriobabesteko. Materiala kriobabestutakoan, 50 µm lodierako ebaketa koronalak egin ziren kriotomoan (Leica, Wetzlar, Germany). Flotazioko sekzioei 5 minutuko 2 garbiketa egin zitzaizkien eta 20 minutuz %3ko hidrogeno peroxidotan inkubatu ziren ehunaren berezko peroxidasak neutralizatzeko. Hiru garbiketa burutu eta gero, lotura gune ez-espezifikoak blokeatzeko asmoz, zaldiaren seruma %5ean erabili zen PBS 0.1M eta %0.5 Triton X-100-etan (PBS-TX) diluituta ordubetez. Gero, flotazioko ebaketak antigorputz primarioarekin inkubatu ziren blokeo soluzioa erabiliz, 4ºC-tan gau osoan zehar (1. taula). GAD67-ren inmunohistokimiarako TX alde batera utzi zen pausu guztietan. Hurrengo egunean, beste 3 garbiketa egin ondoren, sekzioak bigarren antigorputzarekin inkubatu ziren (1. taula) giro-tenperaturan ordu betez eta PBS-TX-etan diluituta. Berriz, PBS 0.1M-etan 5 minutuko 3 garbiketa egin ondoren, mozketak abidina-biotina-peroxidasa konplexuarekin (Vectastain Elite ABC kit, Vector Laboratories) inkubatu ziren. Ondoren, 3,3´-diaminobenzidina (DAB, erref: D5637, Sigma-Aldrich, Espainia) kromogenoa erabiliz errebelatu ziren mozketak, peroxidasen substratu bezala H_2O_2 erabiliz. Azkenik, sekzioak portetan jarri, 48 orduz deshidratatu eta Xiloletan 2 orduz garbitu ondoren, DPX-ekin estali ziren (Erref: 06522, Sigma-Aldrich, Espainia).

Kalbindina, somatostatina eta NeuN-en inmunodetekzioarako antigenoen azaleratzea burutu zen. Horretarako, lehen pausu bezala mozketak sodio zitratoarekin (pH 6.0) 10 minutuz berotu ziren 95ºC-tara. Ondoren, ebaketak bi orduz inkubatu ziren blokeo soluzioan eta antigorputz primarioa jarri zitzaien gau osoan zehar (1. taula). Hurrengo egunean, ebaketak garbitu eta antigorputz sekundarioarekin beste 2 orduz inkubatu ziren. Kalbindina eta somatostatinaren aurkako inmunohistokimietan antigorputz sekundarioa 1:200-eko kontzentrazioan erabili zen eta NeuN-en

inmunohistokimian, aldiz, 1:1000-ko kontzentrazioan. Azkenik, mozketak portetan jarri, 48 orduz deshidratatu eta Xiloletan 2 orduz garbitu ondoren, DPX-ekin estali ziren (Erref: 06522, Sigma-Aldrich, Espainia).

1. taula. Antigorputzen kontzentrazioak eta erreferentziak

Antigorputz primarioak		
Sagu anti-NeuN	1:2000	Erref: MAB3377, Merck Millipore, Alemania
Sagu anti-kalbindina	1:2000	Erref: CB D-28k 300, Swant, Suitza
Untxi anti-somatostatina	1:5000	Erref: T-4103, Peninsula Laboratories, San Carlos, CA
Sagu anti-parbalbumina	1:5000	Erref: PV 235, Swant, Suitza
Sagu anti-kalretinina	1:2000	Erref: 6B3, Swant, Suitza
Sagu anti-GAD67	1:10000	Erref: MAB5406, Merck Millipore, Alemania
Antigorputz sekundarioak		
Zaldi anti-sagu IgG	1:200	Erref: PK-6102, Vectastain ABC Kit, Vector Laboratories, EEBB
Zaldi anti-untxi IgG	1:200	Erref: PK-6200, Vectastain ABC Kit, Vector Laboratories, EEBB

4.6. Inmunofluoreszentzia bikoitza

Parbalbumina eta GAD67-ren inmunofluoreszentzia bikoitza burutzeko, lehenik mozketak bi aldiz garbitu ziren PBS 0.1M-etan 5 minutuz eta gero, %5eko behi-albumina seruma (BSA) zuen PBS 0.1M-etan blokeatu ziren ordu betez giro-tenperaturan. Segidan, ebaketak GAD67-ren aurkako antigorputzarekin inkubatu ziren (1:10000, Erref: MAB5406; Merck Millipore, Alemania) %0.5 BSA zuen PBS 0.1M-etan diluituta 4ºC-tan gau osoan zehar. PBS 0.1M-ekin 5 minutuku 3 garbiketa egin ondoren, ebaketak saguaren aurkako Alexa Fluor 488 (1:300, Erref: A-11029, Invitrogen, Carlsbad, CA, EEBB) antigorputz sekundarioarekin inkubatu ziren ordu betez. Ondoren, mozketei 5 minutuko 3 garbiketa egin eta gau osoan zehar untxian egindako parbalbumina antigorputz primarioan (1:5000, Erref: PV 25, Swant, Suitza) inkubatu ziren, PBS 0.1M, %0.1 Triton X-100 eta %0.5 BSA-tan zuen soluzioan diluituz antigorputza. Hurrengo egunean, untxiaren aurkako Alexa Fluor 568 (1:300, Erref: A-11036, Invitrogen,

Carlsbad, CA, EEBB) antigorputz sekundarioa gehitu zitzaien. Bost minutuko 3 garbiketa eta gero, mozketak Vectashield (Vector Labs, Peterborough, EEBB) erabiliz muntatu ziren. Azkenik, sekzioak Apotome erantsita duen fluoreszentzia mikroskopioan (Zeiss) aztertu ziren.

4.7. BrdU-ren inmunohistokimia

BrdU-ren inmunohistokimiarako erabilitako protokoloa aurretik deskribatutako inmunohistokimia protokoloaren oso antzekoa da. Desberdintasun bakarra aurretik DNA-ren desnaturalizazioa burutu beharra dagoela da. Horretarako, garun sekzioak %50 formamidaz gatz sodio zitratotan (pH 7) aurretratatuak izan ziren 2 orduz 65ºC-tan. Ondoren, DNA 2N HCl-z baliatuz desnaturalizatu zen 37ºC-tan 30 minutuz eta ebaketak PBS 0.1M-etan (pH 7.4) neutralizatu ziren 5 minutuko 3 garbiketa eginez.

Puntu honetatik aurrera, aurretik deskribatutako era berean jarraitu zuen protokoloak. Laburtuz, ebaketen peroxidasak neutralizatu, ordu betez zaldiaren serum normalean blokeatu eta, ondoren, antigorputz primarioan inkubatu (sagu anti-BrdU, 1:200, Erref: B2531, Sigma-Aldrich, Espainia) ziren. Hurrengo egunean, sekzioak antigorputz sekundarioan inkubatu ziren (saguaren aurkako zaldi IgG-a, 1:200, Erref: PK-6102, Vector Laboratories, EEBB) ordubetez eta abidina-biotina-peroxidasa konplexuan (Vectastain Elite ABC kit, Vector Laboratories, EEBB) beste ordubetez, DABrekin errebelatu aurretik (Erref: D5637, Sigma-Aldrich, Espainia). Azkenik, ebaketak portetan jarri, 48 orduz deshidratatu eta Xiloletan 2 orduz garbitu ondoren, DPX-ekin estali ziren (Erref: 06522, Sigma-Aldrich, Espainia).

4.8. Butiril kolinesterasaren histokimia

Butiril kolinesterasaren histokimia sare kapilarraren bistaratze egoki bat ahalbidetzen duen teknika bat da. Flotazioko ebaketak bi aldiz garbitu ziren Tris Maleato tanpoian (pH 6.0) 20 minutuz. Gero, azetil kolinesterasaren jarduera inhibitu zen Tris Maleato tanpoia eta 1.416mg BW284CS1 (1,5-bis (4-allildimetilamoniofenil)-pentan-3-bat dibromida; Erref: A-9013, Sigma-Aldrich, Espainia) 20 minutuz erabiliz. Mozketak

gau osoan zehar inkubatu ziren inkubazio soluzioan (1. eranskina), giro-tenperaturan eta aluminioarekin estalita. Hurrengo egunean, 10 minutuko 2 garbiketa egin ziren Tris Maleato tanpoiarekin. Azkenik, ebaketak portetan jarri eta 48 orduz ilpunpean deshidratatu ondoren, Xiloletan 2 orduz garbitu eta DPX-ekin (Erref: 06522, Sigma-Aldrich, Espainia) estali ziren (19. irudia).



19. irudia. Butiril kolinesterasaren histokimiak kortexeko mikrobaskularizazioa ikusarazten du. (a) Baskularizazioaren adarkatzearen irudi orokorra. (b) Irudiaren erdialdean dagoen disektore esferikoa odol-hodien intersekzioak kontatzeko erabili da.

4.9. Western Blot

Proteina lisatuen prestaketa

Arratoiak anestesiatu ondoren, burua moztu zitzaien gillotina baten laguntzaz. Garunak garezurretik atera ziren kraniektomia bidez eta ondoren bisturi eta lupa baten laguntzaz, bi hemisferiotako kortex prefrontalak eta hipokanpoak moztu genituen. Hipokanpo osoa moztu eta gorde arren, hipokanpo dortsala baino ez dugu erabili Western Blot analisietarako. Kortex prefrontala ebakitzeko orduan, alde orbitalak kendu egin ziren. Ehuna polipropilenozko mikrotutuetan jarri eta hauek segidan -80ºC-tako izozkailuan gorde ziren. Ehuna homogeneizatzeko, gutxi gora behera 60 µl lisi tanpoi erabili ziren ehun miligramo bakoitzeko. Lisi tanpoi mililitro bakoitzari 15 µl proteasen inhibitzaile (Erref: P3840, Sigma-Aldrich, Espainia) gehitu zitzaion. Behin ehuna homogeneizatu eta gero, lisatua izotzetan mantendu zen 30 minutuz eta ondoren

zentrifugatu egin zen 15 minutuz 13000 b/min abiaduran 4°C-tan. Gainjalkina jaso eta mikrotutu berrietan gorde zen.



20. irudia. Western Bloteta egiteko erabilitako materialak.

Bradford entsegua proteinen kuantifikaziorako

Gainjalkin bakoitzean dagoen proteinen kontzentrazioa ezagutzeko, Bradford proteinen entsegua burutu zen. Horretarako, ur distilatua eta proteina laginak mikrotutu desberdinetara pipeteatu ziren, 2. taulan adierazten den bezala. Ondoren, koloratzaile erreaktiboa gehitu zitzaien laginei (Bio-Rad proteinen entsegua, Erref: 5000006, Bio-Rad, Hercules, CA, EEBB) eta 5 minutuz giro-tenperaturan mantendu ziren. Mikrotutu bakoitzeko edukia mikroplakako 3 putzutan banandu zen (250µl putzu bakoitzean) eta lagin ezagun eta ez-ezagunen absorbantzia mailak neurtu ziren fluorimetroan (Erref: Sinergy HT, Biotek Instruments, Inc., UK) ordubete igaro aurretik.

Laginak prestatzea eta gela korritzea

Lagin bakoitzetik beharrezkoa zen proteinen kantitatea jakiteko Bradford entseguaz baliatu ginen. Laginak 5µl 4x lagin tanpoiarekin nahastu eta ur distilatua gehitu zitzaien 20 µl-ko azken bolumena lortu arte. Laginak 10 minutuz irakin ziren eta zentrifugazio motz baten ondoren (30s), lagin kantitate berdinak kargatu ziren poliakrilamidazko geletan (Criterion™ TGX™ Precast Gels, Bio-Rad, Espainia). Laginekin batera, kaleetako baten, pisu molekularraren markatzailea (Fisher BioReagents™ EZ-Run™ Prestained Rec Protein Ladder, Fisher Scientific, Espainia) jarri zen. Gelak 200V-tan korritu ziren. Pisu molekular handiko proteinen (>150KDa) detekzioarako, 45 µg proteina kargatu genituen %4-15 geletan. Aldiz, 150 KDa baino txikiagoak diren proteinen detekzioareko 10-20 µg kargatu ziren %12ko geletan.

2. taula. Ezagunak eta ez-ezagunak diren proteinen kontzentrazioak zehazteko beharrezkoak diren lagin kantitateak.

	H_2O_d	Koloratzaile erreaktiboa	BSA
Hutsa	800 µl	200 µl	--
4	796 µl	200 µl	4 µl
8	792 µl	200 µl	8 µl
12	788 µl	200 µl	12 µl
16	784 µl	200 µl	16 µl
20	780 µl	200 µl	20 µl
Lagina	800 µl	200 µl	Laginaren µl 1

Proteinen transferentzia geletik mintzera

Pisu molekular baxuko proteinen detekziorako (<150KDa) transferentzia erdi-lehorra egin zen Trans-Blot® Turbo™ Transfer System (Bio-Rad, Hercules, CA, EEBB) aparatu komertziala erabiliz. Zazpi minutuko transferentzia burutu zen, intentsitate konstantean (2.5A), 25V-ko tentsio maximo batekin eta PVDF mintzak erabiliz (Trans-

Blot® Turbo™ Midi PVDF Transfer Packs, Erref: 1704157, Bio-Rad, Hercules, CA, EEBB).

Transferentzia hezerako, nitrozelulosazko mintzak (Erref: 10600012, GE Healthcare, Espainia) erabili ziren eta hauek, filtro papera eta zuntzezko kuxinekin batera transferentzia tanpoian murgilduak izan ziren 15 minutuz. Proteinak tentsio konstantean (30V) transferitu ziren 16 orduz, 4ºC-tan. Tranferentzia mota hau 150KDa baino pisu molekular handiagoko proteinak detektatzeko erabili zen.

Markaketa antigorputzekin

Mintzak bi ordu t'erdiz inkubatu ziren hauts-esnetan lotura ez-espezifikoak blokeatzeko. Horretarako hauts-esnea TBST-tan diluitu zen %5ean. Antigorputz primarioan inkubazioa (3. taula) TBST + %5 BSA-tan egin zen gau osoan zehar 4ºC-tan. Hurrengo egunean, mintzak TBST tanpoiarekin 3 aldiz garbitu ziren eta antigorputz sekundarioan inkubatu ziren blokeo soluzioan eta %1 BSA erabiliz ordu betez giro-tenperaturan. Horren ondoren, 5 minutuko 3 garbiketa egin eta seinalea errebelatzeko kimioluminiszente bat erabili zen (Erref: 34076, SuperSignal® West Dura Extended Duration Substrate, Fisher Scientific, Espainia).

Datuen analisia

Errebelatutako mintzen argazkiak ChemiDoc™ XRS+ Imaging System (Bio-Rad, Hercules, CA, EEBB) eskanerraren bidez lortu ziren (20. Irudia). Argazki hauek Image Studio Digits 3.1 (LI-COR Biotechnology, Cambridge, UK) programan ireki ziren dentsitate optikoak kuantifikatzeko. Horretarako, laukizuzen bat marraztu eta bertako seinalearen intentsitatea neurtu zen. Goi eta beheko intentsitateen batezbestekoa erabili zen atzeko seinale gisa.

Banda bakoitzaren seinalea proteina bakar batekiko normalizatu zen, hala nola, aktina (lagin guztietan maila berean agertzen den proteina) edo proteina kantitate guztiarekiko. Azken kasu honetan, intereseko proteina detektatu eta gero (proteinen egitura fosforilatuak, batik bat), mintzak garbiketa tanpoian (Restore Western Blot stripping buffer, Erref: 21059, Thermo Fisher Scientific, Espainia) inkubatu ziren 15 minutuz, berriro antigorputz primarioan inkubatu ahal izateko. Proteinen ugaritasun erlatiboa lortzeko, banden dentsitate optikoak animali kontrolekiko normalizatu ziren.

Emaitza zehatzak ziurtatzeko, intereseko proteinak eta hauen kontrolak mintz berean detektatuak izan ziren, eta kontrolekiko normalizazioa mintz berberean zeuden banden artean burutu zen bakarrik. Datu guztiek, beraz, eramailea daramaten animaliekiko areagotze edo murrizte erlatiboak adierazten dute.

3. taula. Antigorputzen kontzentrazioak eta erreferentziak

Antigorputz primarioak		
Sagu anti-NR2A	1:1000	Erref: MAB5216, Merck-Millipore, EEBB
Untxi anti-NR2B	1:1000	Erref: AB1557, Merck-Millipore, EEBB
Sagu anti-NR1	1:1000	Erref: 05432, Merck-Millipore, EEBB
Untxi anti-PSD95	1:1000	Erref: Af628, Frontier Institute, EEBB
Untxi anti-phospho-Akt (Ser 473)	1:1000	Erref: 9271, Cell Signaling Technology Inc, EEBB
Untxi anti-Akt	1:1000	Erref: 9272, Cell Signaling Technology Inc, EEBB
Untxi anti-phospho-p44/42 MAPK (Erk 1/2) (Thr 202/204)	1:1000	Erref: 9101, Cell Signaling Technology Inc, EEBB
Untxi anti-p44/42 MAPK (Erk 1/2)	1:1000	Erref: 9102, Cell Signaling Technology Inc, EEBB
Untxi anti-phospho-TrkB (Tyr 706)	1:250	Erref: sc-135645, Santa Cruz Biotechnology Inc, Espainia
Untxi anti-TrkB (794)	1:1000	Erref: sc-12, Santa Cruz Biotechnology Inc, Espainia
Untxi anti-BDNF	1:2000	Erref: NBP1-46750, Novus Biologicals, EEBB
Untxi anti-aktina	1:2000	Erref: A2066, Sigma-Aldrich, Espainia
Antigorputz sekundarioak		
Anti-untxi IgG HRP-konjugatua	1:20000	Erref: A-6154, Sigma-Aldrich, Espainia
Anti-sagu IgG HRP-konjugatua	1:20000	Erref: A-9044, Sigma-Aldrich, Espainia

Soluzioei eta tanpoiei buruzko informazio zehatzagoa 1. Eranskinean aurki daiteke.

4.10.Zelulen kuantifikazioa

4.10.1. Estereologia ez-alboratua

Kortex prefrontal medialean (kortex prelinbikoa eta aurreko kortex zingulatua) eta hipokanpoan (hortz-jiroa eta cornus ammonis 1) zelula inmunoerreaktiboen estimazioak burutzeko estereologia inpartzialaz baliatu ginen. Kortex prefrontal medialaren laginketa Bregmatik 4.68 mm eta 1.92 mm bitartean egin zen. Bestalde, hipokanpoan Bregmatik -2.40 mm eta -5.76 mm bitartean egin zen (21. irudia). Kortex prefrontal medialaren eta hipokanpoaren mugak zehazteko, Paxinos eta Watsonen atlas estereotaxikoa erabili zen. Desberdintasun zitoarkitektonikoak ez zirenez erraz nabarmentzen, batez ere zati prelinbiko eta infralinbikoaren artean, beheko muga bezala aurreko burmuin azigo arteria ezarri genuen. Hori dela eta, lan honetan zati prelinbikoari buruz ari garenean, kontutan hartu behar da zati infralinbikoaren alderdi dortsalena ere nolabait barneratuta dagoela.



21. irudia. (a) Planoek arratoiaren garuneko intereseko eskualdeak adierazten dituzte. (b) Kortex prefrontal medialeko ebaketa koronalak. Grisez, intereseko eskualdeak. (c) Hipokanpoko ebaketa koronala. Grisez, intereseko eskualdea.

Mercator Irudien Analisi sistema (Explora-Nova, La Rochelle, Frantzia) erabili genuen kamera digital bat eta 3-ardatzetako plaka motorizatua atxikita duen Olympus BX51 mikroskopioarekin batera (22. irudia). Zelula inmunopositiboak 40x aldiz handiagotzen duen objektiboarekin zenbatu ziren Zatitzaile Optikoaren planteamendua erabiliz. Zatitzaile Metodoa, Zorizko Laginketa Sistematikoan (ZLS) oinarrituz, zelula zenbaki totala estimatzeko gai da interesezko eskualde konkretu batean. Horretarako, eremu osoa X, Y eta Z norabideetan distantzia uniformea duten kontaketa espazio birtualen multzo batez estaltzen da. Zelula kopuru totala zehazteko hurrengo formula hau erabiltzen da: $N=\sum Q \times 1/slz \times 1/elz \times 1/alz$, non Q-k espezimen bakoitzean kontatu diren zelula kopurua adierazten duen eta N-k estimatutako zelula kopurua. Ikerketa honetan erabilitako sekzio laginketa zatikia (slz) 1/8 da kortex prefrontalerako eta 1/10 hipokanporako.



22. irudia. Estereologia ez-alboraturako erabilitako estazio estereologikoa.

Intereseko eremuak 4x handiagotzeko objektiboarekin mugatu ziren. Lauki eta kontaketa markoaren (disektorea) tamaina desberdinak erabili ziren intereseko eremu bakoitzean (4. taula) eta %5eko zaintza zona bat aukeratu zen. Kontaketak estereologiaren kontaketa arauen arabera burutu ziren. Hipokanpoko interneuronen kantitatea zenbatesteko, elz (eremuaren laginketa zatikia) eta alz (alturaren laginketa zatikia)-ri 1

balorea ezarri genien. Orokorrean, animali bakoitzeko gutxi gora behera 7-8 sekzio kontatu ziren intereseko eremu bakoitzean. Bolumenen estimazioak Cavalieri-ren metodoa erabiliz lortu ziren.

4. taula. Zatitzaile Metodoan erabilitako elz baloreak neuronen zenbaki kopurua eta sare mikrobaskularraren luzera zenbatesteko.

	Eremua		Disektorearen tamaina(µm)	Disektoreen arteko tartea (µm)
NeuN	mPFC	PL, AC	25x25	350x350
	HPC	Geruza molekularra (HJ)	50x50	75x75
		Geruza granularra (HJ)	-	-
		Geruza polimorfikoa (HJ)	25x25	75x75
		CA1 (str.oriens eta str.lacunosum)	50x50	150x150
BCh	mPFC	PL, AC	r=50	200x200
	HPC	CA1, CA3, HJ	r=50	200x200
GAD67	mPFC	PL, AC	80x80	270x270
	HPC	CA1, CA3, HJ	80x80	270x270
IN (PB, KR, KB)	mPFC	PL, AC	80x80	220x220
SST	mPFC	PL, AC	80x80	270x270
	HPC	CA1, CA3, geruza polimorfikoa (HJ)	50x50	50x50

elz, eremuaren laginketa zatikia; mPFC, kortex prefrontal mediala; HPC, hipokanpoa; NeuN, neuronen nukleoaren markatzailea; BCh, butiril kolinesterasaren histokimia; IN, interneuronak; PB, parbalbumina; KR, kalretinina; KB, kalbindina; GAD67, azido glutamiko deskarboxilasa 67; SST, somatostatina; PL, kortex prelinbikoa; AC, aurreko kortex zingulatua; CA1, hipokanpoko cornus ammonis 1; CA3, hipokanpoko cornus ammonis 3; HJ, hipokanpoko hortz-jiroa; r, disektore esferikoaren erradioa.

Somatostatina adierazten duten interneuronak hortz-jiroko geruza polimorfikoan baino ez direnez agertzen, eskualde honetako geruza hau bakarrik kuantifikatu zen. Era berean, CA1 dortsaleko zelula parbalbumina- eta somatostatina-positiboen

estimaziorako, *stratum oriens* eta *stratum pyramidale* bakarrik hartu ziren aintzat. Are gehiago, CA1-eko geruza piramidala eta hortz-jiroko geruza granularra baztertuak izan ziren zelula kalbindina-positiboen estimazioetatik, bertan zelula kitzikatzaileek ere kalbidina adierazten dutelako. Halaber, kalbindinaren aurkako antigorputzak kortex prefrontaleko II/III. geruzetan dauden zelula piramidalak ere orbaintzen dituenez, geruza sakonak baino ez dira irudikatzen kalbindinaren estimazioetan.

Odol-hodien luzera zenbatesteko, Zatitzaile Metodoa erabili zen baina disektore optikoak espazio-baloiengatik (disektore esferikoak) aldatuz. Laginketa irizpideak 4. taulan azaltzen dira.

Kontaketa parametroak zehazteko errore koefizientearen (CE) bariantza osorako ekarpena %20a baino txikiagoa zela frogatu genuen atariko proban, hurrengo formula honen bidez: CE^2/CV^2, non CE^2 zenbateste estereologikoen bariantza den eta CV^2 bariantza biologikoa. Normalean, zatikia 0.5 baino txikiagoa denean zenbateste estereologikoak nahikoa zehatzak direla esan ohi da eta estimazioak ontzat ematen dira. Honen arabera, esan genezake gure laginketa prozedura zuzena izan dela.

4.10.2. Parbalbumina eta GAD67 ko-adierazten duten zelulen kuantifikazioa

Kasu honetan, kuantifikazioa mPFC-eko 6 animaliren 4 sekziotan egin zen eta hipokanpoan 3 animaliren 3 sekzio desberdinetan. Sekzioak 400 µm-tan banandu ziren mPFC-ean eta 500 µm-tan hipokanpoan. Irudiak 20x-ko objektiboa erabiliz atera ziren ApoTomea atxikita zuen Zeiss fluoreszentziako mikroskopian. Irudiak berreraiki ondoren, Fiji-ko zelula kontatzaile tresnarekin zenbatu ziren. mPFC-ean 150x150 µm-ko karratu bat erabili zen bai parbalumina bakarrik zein parbalbumina eta GAD67 ko-adierazten zuten interneuronak kontatzeko. Karratu horietako bat eremu linbikoaren parte dortsalean (area prelinbikoan, batik bat) zegoen zentratuta eta bestea aurreko kortex zingulatuaren erdian. Hipokanpoan, sekzio osoak erretratatu ziren eta fotomuntaien bidez berreraiki. Hipokanpoko CA1, CA3 eta HJ eskualde osoak mugatu ziren eta bertako PV eta PV-GAD67 ko-adierazten zuten interneurona guztiak zenbatu ziren.

Dentsitateak PV eta GAD67 adierazten duten soma kopurua mm^2-ko bezala ematen dira. Ostean, PV-GAD67 ratioak PV eta GAD67 adierazten duten soma kopurua zati PV+ interneurona zenbaki orokorra bezala azaltzen dira.

4.11.Analisi estatistikoa eta irudien prestaketa

Animalien pisuaren aldaketak eta "Eremu irekiko proba"-ko portaera 21., 24. eta 55. jaio ondorengo egunetan Student T-testaren bidez aztertu ziren normaltasunaren arabera banandutako datuen kasuan. Aldiz, datuak normaltasunaren arabera bananduta ez zeuden kasuetan, Mann-Whitney-ren U testa erabili zen. Datu bolumetrikoak eta PV-GAD67ren ko-adierazpeneko datuak bi bidetako bariantzaren analisia (ANOVA) erabiliz alderatu ziren, faktore nagusiak tratamendua (sodio kloruroa edo MK-801) eta hazkuntza baldintzak (estandarra edo ingurune aberastua) izanik. Neurketa errepikatuen ANOVA Morrisen ur labirintoko ikasketa fasea analizatzeko erabili zen. Gainontzeko portaera datu guztiak eta datu histologiko eta molekularrak bide bakarreko ANOVAren bidez aztertu ziren, estimazio estereologikoak eta Western Blotak barne. Neurketa errepikatuen ANOVAren bidez analizatu ziren datuetan, lehenik eta behin datuen normaltasuna eta esferikotasuna aztertu zen, Shapiro-Wilks-en eta Mauchly-ren proben bidez, hurrenez hurren. Proba hauek datuen normaltasuna berretsi zuten, baina datu batzuek esferizitatearen hipotesia hausten zutenez, Greenhouse-Geisser-en zuzenketa erabili zen F estatistika zuzentzeko eta aldaketa esanguratsuak aztertzeko. ANOVAren bidez analizatu ziren datuetan normaltasuna eta bariantzaren homogeneitatea aztertzeko, Shapiro-Wilk eta Levene-ren probak erabili ziren, hurrenez hurren. Bariantza berdineko datuak Bonferroni-ren Post Hoc probarekin aztertu ziren eta Levene-ren proba hausten zuten datuen kasuan, Tamhane-ren T2 proba erabili zen ANOVAren esangura aztertzeko. Interneurona desberdinen zenbakiak ataza kognitiboetako portaera aurresan dezakeen ikusteko, erregresio linealaren analisia erabili zen.

Konputazio guztiak SPSS softwarea (23.0 bertsioa, IBM, Espainia) erabiliz burutu ziren eta 0.05 baino baxuago ziren p baloreak esanguratsutzat hartu ziren. Emaitzak batezbesteko ± BEK (batezbesteko errore koadratikoa) bezala adierazten dira. Estereologiako analisiaren batezbesteko baloreak eta desbiderapen estandarrak 2. Eranskinean aurki daitezke.

Ehunen sekzioen argazkiak Olympus BX41 mikroskopioarekin atera ziren eta Adobe Photoshop 6.0-ren bidez prestatu. GraphPad Prism 4 softwarea (GraphPad, La Jolla, CA, EEBB) erabili zen grafika guztiak sortzeko.

5. Results

5.1. Body weight gain is affected by MK-801 during treatment period

It has been previously described that MK-801 administration decreases body weight gain in rodents *(Li et al., 2015)*. We therefore measured body weight between P10 and P20 on a daily basis and every two weeks thereafter. Student's T-test revealed significantly lower body weight gain during treatment period in MK-801-treated rats that was observed from P12 to treatment cessation (Figure 23), but no differences were found at P31 or later on.



Figure 23. Effect of neonatal MK-801 administration on body weight gain across development. Data are represented as mean ± SEM. *p<0.05; **p<0.01; ***p<0.001 (T-test; vehicle group vs. MK-801 group).

5.2. Locomotor activity in Open-Field Test

In the Open Field Test (OFT), the total distance traveled was significantly shorter in MK-801-treated rats than in saline controls 24-hours after last injection (Mann-Whitney U test, $p < 0.001$; Figure 24a). In addition, the relative distance moved in the center of the arena was also significantly shorter (Mann-Whitney U test, $p < 0.001$; Figure 24b). On P24, these differences were absent ($p=0.378$) and normal locomotor activity was preserved until P55 ($p=0.403$).



Figure 24. Effects of chronic MK-801 treatment on locomotor activity in the Open Field Test at (a,b) postnatal days (P) 21, P24 and P55 and (c,d) after exposure to enriched environment on P73. Data in (a,c) represent the total distance traveled whereas (b,d) show the percentage of distance moved in center vs. periphery. (e,f) Representative tracks of locomotor activity in Actitrack at P21 in (e) vehicle group and (f) MK-801 group. Data are plotted as mean ± SEM. *p<0.05; **p<0.01; ***p<0.001.

After a short exposure to EE in early adulthood, rats exhibited significant changes in locomotor activity in terms of total distance moved ($F(3,35)=22.31$, $p<0.0001$) and the relative distance spent in the center ($F(3,34)=7.31$, $p<0.001$). Post Hoc analysis revealed that there was not any difference between standard environment raised animals in either parameter on P73. However, MK-801+EE showed significantly less activity than MK-801 group ($p<0.0001$; Figure 24c). Comparisons of relative distance in center showed that VH+EE traveled about one-third as much distance in center compared to the other 3 groups (Figure 24d). The tendency to avoid the periphery of the OFT is widely used to assess anxiolytic-like effects of treatments or interventions.

5.3. EE restores spatial learning and recognition memory impairment induced by MK-801

Morris Water Maze

To determine the presence of cognitive deficits after neonatal MK-801 treatment, and to evaluate the potential therapeutic effects of EE, we tested the animals in Morris Water Maze from P65 to P70. Repeated-measures ANOVA showed significant differences of performance during the acquisition phase in Morris Water Maze in terms of escape latencies ($F(3,42)=7.877$, $p<0.0001$, Figure 25a) and path length ($F(3,42)=7.942$, $p<0.0001$, Figure 25b). Post Hoc comparisons showed that MK-801-treated rats showed a significant increase in both time and distance to find the hidden platform when compared to VH (time $p<0.0001$; distance $p=0.01$) and VH+EE rats (time $p=0.005$; distance $p=0.001$) (Figure 25a and b), representing major impairment of spatial learning. This impairment in spatial learning of MK-801-treated rats allowed dissecting the role of EE in cognitive enhancement. Indeed, MK-801+EE rats showed normal spatial learning (MK-801+EE vs. VH - time and distance $p=1.00$; MK-801+EE vs. VH+EE - time $p=1.000$, distance $p=0.365$). Bonferroni Post Hoc test showed that MK-801+EE group spent less time to locate the platform compared to MK-801 rats in standard conditions ($p=0.004$), and traveled less distance ($p=0.044$), which strongly suggests improvement in spatial learning abilities.

All rats showed a significant improvement in the acquisition phase of Morris Water Maze. Escape latency and distance to the platform decreased over the 5 days of training ($F(4,39)=43.858$, $p<0.001$; ($F(4,39)=26.908$, $p<0.0001$), respectively), indicating that animals spent less time to reach the platform as the training proceeded. Representative traces of the swimming paths during last day of training are shown in Figure 25c.

After 5 days training, probe trial was performed with the platform removed to evaluate reference memory. The parameter "mean distance to target" (MDT) provided by SMART software was used, which is a measure of proximity and directionality to the location of the platform. Some studies have concluded that this parameter is consistently more sensitive at detecting group differences than more commonly used parameters, like percentage of time or number of crossing of target quadrant *(Gallagher et al., 1993; Maei et al., 2009).* Swimming speed was measured throughout the test, and significant difference was observed in the mean swimming speed between groups in probe trial ($F(3,39)=8.211$, $p<0.0001$). Nevertheless, MDT is minimally affected by changes in velocity. We found significant differences in reference memory between groups ($F(3,35)=11.135$, $p<0.0001$; Figure 25d). Bonferroni Post Hoc test showed that MK-801 treatment during neurodevelopment did not affect reference memory in the Morris Water Maze (VH vs. MK-801, $p=1.00$). However, rats that had experienced EE showed lower values of MDT, suggesting improved reference memory (EE groups vs. VH, $p<0.0001$; MK-801+EE vs. MK-801, $p=0.01$; VH+EE vs. MK-801, $p=0.007$; Figure 25d).

In the visible platform test there were no differences between groups in time ($F(3,39)=2.425$, $p=0.08$) or distance ($F(3,39)=1.324$, $p=0.28$), which indicates that the differences in performance in spatial learning acquisition may not be ascribed to differences in general sensorimotor skills (Figure 25a and b, "cue").



Figure 25. Spatial learning and memory in the Morris Water Maze. MK-801 animals were less efficient in finding the platform, as demonstrated by increased (a) average time and (b) distance during acquisition trials, and this was reverted by adult short-term exposure to EE. (c) Tracks are depicting schematic representation of swimming paths on Morris Water Maze on day 5 in each group. (d) Mean distance to target during Morris Water Maze probe trial showed no significant differences between standard condition animals, but enriched animals presented improved reference memory. Results are presented as mean ± SEM. In a and b, *significance MK-801 vs. VH (**$p < 0.01$; ***$p < 0.001$); $^{+}$significance MK-801 vs. MK-801+EE ($^{+}p < 0.05$; $^{++}p < 0.01$); $^{\#}$significance MK-801 vs. VH+EE ($^{\#\#}p < 0.01$; $^{\#\#\#}p < 0.001$), using Repeated-Measures ANOVA. In d, *$p < 0.05$; **$p < 0.01$; ***$p < 0.001$ (one-way ANOVA).

Novel Object Recognition task

Novel Object Recognition (NOR) test is widely used to assess cognitive function in animal models. In the acquisition phase, the total exploration time was comparable between groups ($F(3,27)=1.930$, $p=0.149$). However, there was a significant difference in in the test trial ($F(3,26)=15.75$, $p<0.0001$; Figure 26). Post Hoc analysis showed that early MK-801 treatment led to cognitive dysfunction, as discrimination index was significantly lower in MK-801 group compared to saline controls ($p=0.04$).

MK-801+EE group presented normal recognition memory (vs. VH, $p=0.412$), and discrimination index was significantly augmented when compared to MK-801 group ($p=0.012$), representing major memory improvement. Rats in VH+EE group showed the greatest discrimination index, but not statistically different from MK-801+EE group (VH vs. VH+EE, $p=0.001$; MK-801 vs. VH+EE, $p<0.0001$; Figure 26).



Figure 26. Discrimination Index in Novel Object Recognition task performed on P71. MK-801 group exhibited impaired object recognition memory that was reverted by EE. Data are represented as mean ± SEM. *p<0.05; **p<0.01; ***p<0.001 (One-way ANOVA).

5.4. Associative recognition memory deficit is partially reversed by EE

Object-in-Place is a type of object-place paired-associative task that highly relies on the interplay between hippocampus and mPFC. During the sample trials in the Object-

in-Place tests, the interaction time with objects was comparable across groups ($F(3,37)=1.768$, $p=0.17$). In the test trial, one-way ANOVA showed differences between groups ($F(3,35)=7.016$, $p<0.0001$; Figure 27). Neonatal MK-801 exposure significantly reduced discrimination index (VH vs. MK-801, $p=0.047$), and enrichment produced a 3-fold increase in MK-801 animals, although it was not significantly different from MK-801 group. However, the average discrimination index of MK-801+EE group (15.2%) was not statistically different from the VH group either (22.02%, $p=1.00$), showing a partial recovery of associative memory. VH+EE showed the highest preference index (30.5%), doubling the index of MK-801+EE rats.



Figure 27. Graph shows the discrimination index in Object-in-Place (OiP) task performed on P72. MK-801 group exhibited impaired object recognition associative memory that was partially reverted by EE. Data are represented as mean ± SEM. *p<0.05; **p<0.01; ***p<0.001 (One-way ANOVA).

Since we failed to find significant differences between MK-801 and MK-801+EE groups, we performed a two-way ANOVA analysis to unravel the effects of MK-801 and EE as independent variables. We found that both MK-801 ($F(1,35)=14.714$, $p=0.001$) and EE ($F(1,35)=4.921$, $p=0.033$) had a significant effect on discrimination index in Object-in-Place task.

5.5. Volume of medial prefrontal cortex and hippocampus

Medial prefrontal cortex (mPFC) and hippocampal volumes were measured in the same sections used for NeuN quantification. Two-way ANOVA showed a significant decrease in prelimbic ($F(1,20)=8.32$, $p=0.009$) and anterior cingulate ($F(1,20)=8.19$, $p=0.01$) volume associated with early life MK-801 administration (Figure 28). Similarly, the treatment significantly reduced hippocampal CA1 volume ($F(1,20)=9.08$, $p=0.007$), but not that of dentate gyrus ($F(1,20)=1.48$, $p=0.237$). Contrarily, EE significantly increased mPFC volume (prelimbic cortex $F(1,20)=7.02$, $p=0.015$; anterior cingulate cortex $F(1,20)=11.57$, $p=0.003$), and the volume of DG ($F(1,29)=4.99$, $p=0.04$). No significant changes were detected in CA1 of hippocampus caused by EE (Figure 28).



Figure 28. Estimates of mPFC and hippocampal volumes by Cavalieri's method. Histograms show the estimated volumes of the (a) PL, prelimbic cortex, (b) AC, anterior cingulate cortex, (c) CA1, cornus ammonis 1, and (d) DG, dentate gyrus of hippocampus in different experimental groups. Values represent mean ± SEM. *Significance of treatment (*$p<0.05$; **$p<0.01$), $^{\#}$significance of housing ($^{\#}p<0.05$; $^{\#\#}p<0.01$).

5.6. Vascular changes

Neurons, astrocytes, and blood vessels are organized in a functional unit, termed as "neurogliovascular unit", in which the vasculature can affect neuronal and glial activity and, in turn, dynamically adjust to their changes. Micro- and macrovascular abnormalities have direct implications on the pathophysiology of schizophrenia *(Katsel et al., 2017).* For assessing if MK-801 or EE induced vascular changes, endothelial cells of vessels were revealed by butyryl cholinesterase histochemistry, and total vessel length was estimated by stereological means in mPFC and hippocampus. We failed to find differences in mPFC, although one-way ANOVA was near significance ($F(3,20)=2.965$, $p=0.057$; Figure 29). However, we found significant changes in hippocampus ($F(3,19)=7.039$, $p=0.002$), mainly due to decreased microvascular length in MK-801-treated animals (MK-801 vs. VH, $p=0.031$; MK-801 vs. MK-801+EE, $p=0.013$; MK-801 vs. VH+EE, $p=0.003$).



Figure 29. Estimated vessel length by stereology using Space Ball (spherical probe) in medial prefrontal cortex (left) and hippocampus (right). Post Hoc analysis showed that EE reverted MK-801-induced loss of vasculature in hippocampus. mPFC, medial prefrontal cortex; HPC, hippocampus. Graphs show mean ± SEM. *p<0.05; **p<0.01; ***p<0.001.

To further assess whether MK-801 and EE could have significant effects as independent variables, we performed two-way ANOVA in hippocampus and mPFC. Similar to the results obtained in one-way ANOVA, no effect of either factor was found in mPFC [MK-801 ($F(1,19)=0.006$, $p=0.937$); EE ($F(1,19)=0.023$, $p=0.88$)]. However, in hippocampus, we found that MK-801 had a significant effect ($F(1,19)=7.420$, $p=0.013$),

as well as EE (F(1,19)=9.394, p=0.006), but their interaction was not significant (F(1,19)=3.395, p=0.081).

5.7. Cell proliferation and survival in subgranular zone of dentate gyrus

It has been previously described that MK-801 administration in adult animals increases cell proliferation in the subgranular zone of dentate gyrus. This seems to result from dysregulated control of proliferation. EE has been shown to increase cell proliferation as well. We aimed to test if early life MK-801 administration would induce long-lasting increase in cellular proliferation, and how EE would affect in that case. For that, we injected BrdU at high doses (200mg/kg) 24 hours before transcardial perfusion. 200mg/kg is almost a saturating dose, which is recommended for quantification assays.

We found significant differences between groups (F(3,21)=3.882, p=0.029; Figure 30). Increased cell proliferation was observed in MK-801 and MK-801+EE groups compared to control animals (VH vs. MK-801, p=0.035; VH vs. MK-801+EE, p=0.043). Even though the mean density of BrdU+ cells in VH+EE was higher than in VH group, one-way ANOVA failed to find significant differences.



Figure 30. BrdU+ cells in subgranular zone of dentate gyrus in MK-801 animals using (a) 4X magnification and (b) 20X magnification. Histogram shows that the density of proliferative cells was significantly increased in MK-801-treated animals, independently of the housing condition. Data are represented as mean ± SEM. *p<0.05; **p<0.01; ***p<0.001. Scale bar (a): 300 µm; Scale bar (b): 50 µm.

